ttipi ttapa

424

2006ko ekainaren 15a • XXVI. urtea



## Oreinak hazten Leitzako Lesakenean 03

Haragitako behiak kendu eta 60 orein eme ekarri zituzten duela bi hilabete Leitzako Lesakenera. «Ongi badoa, 150 orein» jartzeko asmoa dute.



## Arkupeak elkarteak 20 urte bete ditu 04

Hogei urte bete ditu eskualdeko 3.500 erretiratu biltzen dituen Arkupeak elkarteak. Ekainaren 6an egin zuen urtebetetze ospakizuna Gorraizko Gazteluan.



28 ASIER APEZETXEA

# Euskadiko txapeldun mendi bizikletan

Argazkia: Oskar TXOPERENA


Birentzako koltxoi bat edo banakako bi koltxoi erosi z gero
BIZIKLETA BAT OPARI
ORDOKI
altzariak
ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • LESAKA • Tfnoa: 948 63 77 80


larunbatero
doneztebe n
giro paregabea
ekainak
24
KONTZERTUA
Jalisko Band
Eskerrik asko!!!
guregana hurbildu
zareten guztiei!!
gazteentzat
MENU BEREZIAK
JATETXEETAN GAZTEENTZAT
MENU BEREZIAK
Arozena jatetxea............948450443
Belarra jatetxea..............948450306
Hilarion jatetxea.............948450003
Hostal Rte. Ameztia.........948450028
Hostal Rte. Santamaria...948450043
Kontxa gasolindegia........948450787
SARITUA
DAVID ANDRESENA
ZOZKETA
Bar IRRINTZI
SHANTI OSTATUA
Bar AMEZTIA
MAYLIN ostatua

## DATUAK...

• Baserriaren etorkizunarekin kezkati eta norabide berria eman nahian, haragitako behiak kendu eta 60 orein eme ekarri zituzten duela bi hilabete Leitzako Gorriztaran auzoko Lesakenera.

• Joxe Mari Gartziarenak jakinarazi digunez, «proba moduan hasi gara eta ez gara kolpean gehiago ekartzera ausartu. Ongi badoa 150 orein jartzeko ideia badaukagu».

• Dirulaguntzarik ez duela izan aipatu digu eta «baimenak eta paperak lortzeko traba asko».



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

**Joxe Mari GARTZIARENA** *Leitzako Lesakenea baserrikoa*

# «Eskura jatera etortzen dira oreinak, baina instintu basatia beti hor dute»

Aitor AROTZENA

**Nola gogoratu zitzaizun behiak eta zekorrak kendu eta oreinak jartzea?**
ETBko «Sustraia» programan ikusi nuen baserri batean oreinak nola zituzten eta idea gustatu zitzaidan. Beti gogoan gelditu zitzaidan. Behiekin, berriz, beti gehiago atera beharra, gero eta gehiago estutzen zaituzte, subentzioak bajatu... Orain dela bi urte beste hamar behien deretxoak erostea eta anpliazioa egitea pentsatzen negoen. Gastu handia heldu zen eta buruari buelta batzuk emanez, aldaketa egitea eta oreinekin proba egitea pentsatu nuen.

**Baserriaren etorkizuna ilun ikusten den honetan, beste aterabidea bilatzeko modua izan da?**
Bai, hori da. Gero, baserri ondoan etxe berri bat ere egin genuen eta orain baserria moldatu eta agroturismorako jarri nahi dugu. Aukerak zabaldu beharra dago. Behiak kentzea pena eman zidan, baina horrela ezin zitekeen segitu!

**Zertarako erabiltzen dira oreinak?**
Guk Iruñeko Zandiori erosi dizkiogu. Bera honetan ari da eta granjak baditu Milagron, Iruña ondoko Adoainen, Gasteizen... Gero, Andaluzia aldeko ehiza kotoetara eramaten ditu errepoblatzeko eta... Orduan, oreinak erosi eta lau bat hilabete dituztenean berriz ere saldu egiten diogu.

> «Behiak kentzea pena eman zidan, baina horrela ezin zitekeen segitu! Gero eta dirulaguntza txikiagoak eta exigentzia handiagoak ditugu»

**Azpiegitura lan handia egin behar izan duzue baserrian oreinak jartzeko?**
20 Hektareako lur eremuan ditugu oreinak, belasoroan eta pinudian eta hori dena itxi behar izan dugu, bueltan-bueltan 3 kilometro terdi. Gainera, 2,40 metroko altuera jarri behar zaio hesiari eta urtebete eman dugu lan horretan anaiak eta biok. Garestia ere bada, metroko mila pezeta kostatzen da eta laguntzarik batere ez.

**Oreinek beraiek lan handia eskatzen dute?**
Ez dut uste, esperientzia handirik ez daukagu, bi hilabete bakarrik, baina lan asko ez dute ematen. Beste lan batera ere dedikatu daiteke oreinak izanagatik.

**Ongi egokitu al dira oreinak Leitzako paraje horietara?**
Oso ongi momentuan. Harrituta gelditu ginen. Beldurra geneukan, saltatu nahian edo hasiko ote ziren, baina ez. Aurrena granjan eduki genituen, behientzako genuen nabe batean. Oso izu etorri ziren eta haruntza eta honuntza laisterka ibiltzen ziren. Gero, inguruan zati bat itxi eta hara ateratzen utzi genituen eta azkenean sorroetara. Pixkaka-pixkaka jarri egiten dira, eskura etortzen direla ere jartzen dira. Goizero, jana emateko ontzi bat jotzen dut makilarekin deitzeko eta ederki etortzen dira. Hori bai, hauek beti daukate bere instintu basati hori. Kanpoko norbait etortzen bada burua goratu eta ihes egiten dute.

**Etorkizunera begira, esplotazioa handitzeko asmorik baduzue?**
Abuztu edo irail aldera hiru ar sartu nahi ditugu, berrea edo marrualdirako. 150 orein jartzeko idea daukagu, baina hemen lur-eremuak agintzen du azkenean. Hortik gora, jarri ahalean ikusi beharko da.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE
**Maiatzaren 31ko prentsaurrekoan Sunbillako Eusebio Iratzoki, Leitzako Eusebio Maritorena, Doneztebeko Felipe Ganboa, Arizkungo Javier Larralde eta Iruritako Joxe Oronoz.**

GORRAIZEN EGIN ZUEN OSPAKIZUNA EKAINAREN 6AN

# Arkupeak erretiratuen elkarteak hogei urte bete ditu

**Ekainaren 6an ospatu zuen Arkupeak erretiratuen elkarteak bere hogeigarren urteurrena. Gorraizen egindako ekitaldian, urtero bezala, 85 urte bete dituzten bazkideak eta Urrezko Eztaiak egin dituzten senar-emazteak ere omendu zituzten, 63 lagun guzira. 750 bazkide bildu ziren. Baztan, Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Urdazubi-Zugarramurdi eta Leitzaldeko bazkideak ditu gaur egun Arkupeak elkarteak, baita Irun, Burlata edo Iruñean bizi diren bidasotarrak ere. 3.480 guzira.**

Xan HARRIAGUE

Doneztebeko bulegoan maiatzaren 31n emandako prentsaurrekoan, Felipe Ganboa Jorajuria presidenteak elkartearen hasiera gogoratu zuen. Eskualdeko lau lagunek bultzatu zuten gaur egun 3.500 bazkide dituen erakundea: Felipe berak, Igantziko Faustino Manterolak, Urrozko Joxe Ariztegik eta Zintronikoko Pablo Gonzalezek. *«Eskualdeko bizi-kalitatea eta hirugarren adinaren ongizatea hobetzeko jaio ginen* –dio Felipe Ganboa, gaur eguneko presidenteak–. *Elkarte eredugarria nahi genuen, eta neurri haundi batean, lortu dugu. Erretiratuek hasieratik lagundu zuten eta erakundeek ere lagundu dute gehienetan»*.

1986tik 1996ra, hamar urteko lehen garaian, elkartea pixkanaka handitzen eta ezagutzera ematen joan zen. *«Bidea markatzen hasi ginen eta gure mezua hori zen: jendea etxetik aterarazi eta bizia aldatzea, adineko jendea ahalik eta hobekien bizitzea. Hori lortu da eta zenbakiak ikustea aski da, urtetik urtera gehiago baikara bidaietan eta gainerakoetan»*. Hasiera hartan gauza aunitz egin nahi izatea izan zen okerrik handiena, Ganboaren ustez: *«Presaka joan nahi genuen eta sobera korritu genuen, eta abudoegi joanez gero badakizu! Erortzeko arriskua ere bada. Akats batzuk egin genituen, baina aitzinera goazi eta tira!»*. 1996tik 2006ra elkartea sendotu egin da, lehenbiziko garaian egindako okerrak zuzenduz, *«baina gure bidea utzi gabe»* presidenteak azpimarratu duenez.

### Felipe Ganboa: «Presidente kargua utziko dut aurten»

Hogei urtez Arkupeak elkarteko buru izan ondotik, presidente kargua uz-

teko borondatea ere adierazi zuen Felipe Ganboak, *«lehenxeago edo beranduxeago, nere lana bete dudala uste baitut. Ez dut egun zehatzik aipatuko, baina aurten utziko dut. Halere, Arkupeak elkartearen barrenean segituko dut»*.

Hogei urteotan egin gabe gelditu diren egitasmoak ere gogoratu zituen Felipe Ganboak. Garrantzitsuena, Doneztebeko Pantxonean Malerrekako erresidentzia egiteko proiektua. Azpilkuetan, Xabierko Frantziskoren amaren sortetxean, Dorreberrian, egin gogo zuten museoa ere ez dela aitzinera atera gogoratu zuen. Xabierko Frantziskoren heriotzaren bosgarren mendeurrenean izanik ere, ez da sosik ailegatu egitasmo honentzat: *«Nafarroako Gobernuko presidenteari erran nion Xabierko Gazteluan gastatu behar zuten mila milioi pezeten %10a hemen uztea, baina ez zen ailegatu. Eskualdeko alkate batek ere erran zidan, hobe zela deus ez egitea, aziendak lasaiago egonen zirelako. Hori egia da! Museo egiteaz gain, Jatsurekin eta Donibane Garazirekin senidetzeko asmoa zen. Bi herri hauetan San Frantziskorekin zerikusia duten etxeak ongi zainduak daude, baina Azpilkuetakoa ez»*.

### Etorkizunera begira

Bi hamarkada hauetan bizitutakoa errepasoa egin ondotik, hurrengo hamar urteetan Arkupeak elkartea zer izanen den ere iragarri nahi izan zuen Ganboak. Garai berriak dira, eta ideia eta forma berriak ere beharko direla jakitun dira, baina etorkizuna itxaropenez betea ikusten dute.

## MALERREKAKO ERRESIDENTZIA DONEZTEBEKO PANTXONEAN



Argazkia: Xan HARRIAGUE

**Pantxonea oso-osorik bota beharko da, erresidentzia berria egitekotan.**

Arkupeak elkartearen egitasmo nagusietako bat izan da Doneztebeko Pantxonean Malerrekako Erresidentzia edo Zaharetxea egitea. Oraindik orain ez dira eraikitzeko lanak hasi, proiektua 2002an idatzi baldin bazen ere. *«Zerbitzu hau ez daukagu Malerrekan, baina bai Baztan, Lesaka eta Beran. Eta hemen ere bada beharra. Beti diruaz solasten dugu eta ez zerbitzuetaz, eta zerbitzu hori behar-beharrezkoa da eskualdean»*. Halere, etorkizun hurbilean gauzatuko dela uste du Ganboak: *«Hasieran, bakarrik egiten ahal genuela uste genuen eta hori gure akatsa izan zen, erakundeek bizkarra eman zigutelako. Orain argia ikusten hasiak gara eta Doneztebeko Udalean badira proiektua bultzatzen ari diren zinegotziak, Malerrekako Mankomunitateko presidentea ere hor dabil jotake lanean»*.

Etxea Arkupeak elkartearena da, baina egoera kaxkarrean dago eta laguntza beharko dute moldatzeko. *«Faustino Manterolak aipatu zidan erresidentzia egina ikusten zuenean erretiratuko zela. Zoritxarrez, hura hil zen eta nik, lanen hasiera bederen ikustea espero dut»*. Ekainaren 6ko ospakizunera Nafarroako Gobernuko agintariak joan zirela aprobetxatuz, eskari hori berriz ere egin zuen Arkupeak elkarteko presidenteak.

## Felipe GANBOA *Arkupeak elkarteko presidentea*

# "Arkupeak elkartea ez da bertzeak baino hobea ezta txarragoa ere, ezberdina da"



**Zer dauka Arkupeak elkarteak bertze elkarteek ez daukatena?**

Nik beti erran dut Arkupeak ez dela bertze elkarteak baino hobea ezta txarragoa ere, ezberdina da. Gure izakera horrelakoa izan da, eta etorkizunean ere horrela izanen da. Gauza batzuk ongi egin ditugu eta bertze batzuk gaizki, baina beti borondate onenarekin saiatu gara. Denen gustoa egitea ezinezkoa da, baina gehienak ase ditugula uste dut.

**Hogei urteotako errepasoa eginez, zein dira zure ustez lorpenik handienak?**

Jendearen eta erakundeen laguntza handia izan da, ehundaka bidai egin ditugu eta horietan milaka jende mugitu da. Donezteben egindako pisu tutelatuak ere hor ditugu.

**Oroitzapen gaziagoak ere izanen dituzu...**

Oroitzapenik txarrena, gure tartetik joan diren lagunen eta bazkideen heriotzak izan dira, horiek ez dute bueltarik. Teknologia berrietara egokitzen ez dugu ikasi, seguraski horretarako zaharregiak ginelako. Gero, badira egin nahi izan ditugun eta oraindik egin gabe dauden proiektuak, baina saiatu, saiatu gara.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Peio Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xarno, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortziriëtako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

2006/02/16 • **416.** zbk.



# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Arantzako mendi itzulia zela eta:

Maiatzaren 21ean genuen zita mendia maite dugunok Arantzako itzulia egiteko. Eguraldi ederra argitu zuen goiz goizetik eta kaxkoz kaxko paraje zoragarriez gozatzeko aukera izan genuen partehartzaileok. Egin kontu laurehundik gora mendizale baginela goiz horretan, eta txukun seinalizatutako ibilbideari esker inor ez zela galdu!

Ingurua paregabea izateaz gain, antolakuntza aldetik inoiz horrelakorik ikusi gabea nintzen. Beharrezko kontrolez gainera baziren lau eremu diferentetan sabela eta eztarria ongi asetzeko mahaiak jarriak nahikoa jenerokin. Salda beroa eta guzti alajainkoa!

Hori gutxi ez, eta herrira iritsitakoan Aterpe erretegian dutxa beroak, baita plazan luntx ederra prestatua ere.

Beraz, zorionak guzti hori aurretik eta egun berean antolatzen ibili zinetenei. Mila esker Gazte Asanblada eta Ekaitza elkarteari eta segi horrelaxe urte askoan.

**Leitzan bizi den Arantzatar bat.**

## ETB-1en herriak eta abar

Nik, egia esan, ez dakit ongi zer gertatzen den ETB1en azken bolada honetan, baina kontua da, batez ere, orain dela bi edo hiru hilabete sarritan ikusi ditudala pantaila horretan honelako perlak, esaterako, Erasun, Aoiz, San Martin de Unx, Mugaire, gaisorik, San Francisco kalea, Bilbao, Lekarotz, Pueyo, Olite, Tudela, Iruña Oca, Campanas, Elciego, Arizala, Azpilikueta (Baztangoa), Aranzadi (Iruñekoa), Iruñako..., Burselas, eta abar.

Hasieran, "azken bolada honetan" jarri dut, baina egia esanda, betidanik ikusi izan ditut tankera honetako akatsak ETB1en. Noizean behin, hutsen bat egitea ulergarria eta onargarria izan liteke, baina hainbat eta hain sarritan nik neronek behintzat ezin ditut ulertu. Bururatzen zaidan arrazoi bakarra da, akats horiek egiten ote diren, ETB2ra begira prestatzen ote direlako programa horiek, bestela ulergaitza gertatzen zait hori guztia, ez baldin bada, behintzat, utzikeria, axolagabekeria eta zabarkeria handi samarra dagoela.

Bukatzeko, gaizki deritzot Euskaltzaindiari jaramonik ez egitea, jakinaren gainean egonda, Bilbo eta Tuteraren kasuetan bezala, konparaziora, egunero-egunero nahita Bilbao eta Tudela jartzen baitituzte, esaterako, eguraldiaren mapan.

Benetan, uste dut gai honetan ere zorroztasun handiagoz jokatu beharko lukeela ETB1ek.

**Xanti Begiristain Madotz. Iruñeko Udaleko Aralarreko zinegotzia.**

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D.NAVARRA 2006-06-05

*«Emakumeak arazoak moldatzeko ahalmen handiagoa du, modu globalean ikusteko gai delako. Errealitatetik hurbilago dago eta soluzio praktikoagoak eta inteligenteagoak bilatzen ditu. (…) Emakumeok autoestimua altxatu behar dugu. Izan ere, azkenean, gizonek emakumeok egiten uzten dioguna bakar bakarrik egiten dute».*

**Helena SANTESTEBAN**
Berako alkartea eta
EAko parlamentaria
D. Navarra 2006-06-05

*«Egia da emakumeak jotzen dituztenak gero eta gazteagoak direla. Hezkuntza sistemak aldaketak bultzatu ditu, bai, baina neska-mutilek 5-6 ordu pasatzen dituzte eskolan. Eta zer gertatzen da gainerako 18-19 orduetan? Aztertzeko modukoa da, gurasoengandik hasita, gizarteak zer-nolako harreman eredua eskaintzen dien».*

**Maite ERRO** (Lesaka)
EAEko Berdintasunaren
Aldeko Defendatzailea
Berria 2006-06-06

## • 11 GALDERA LABUR •

**Eskubaloian, areto-futbolen, laxoan aritzen zara… Kirol guziak atsegin dituzu?**
Bai, gehienak gustokoak ditut.

**Miresten duzun kirolari bat edo kirol talde bat?**
Aurten azpimarratzekoa da Osasunak egin duen denboraldia.

**Futbolean Munduko Kopa hasi da. Nor ikusten duzu faborito?**
Denen ahoan dagoena Brasil da, ea zer gertatzen den.

**Bidaiatzea ere gustatzen zaizu… Peru eta Boliviako oroitzapenik goxoena?**
Cuzco, Machupichu, Titicaca… baina goxoena han ezagututako jendea eta bizitutako momentuak.

**Ezagutzea gustatuko litzaizukeen bertze lekuren bat?**
Ekialdea ezagutu nahi dut, Europa lehen eta gero Asia.

**Burrunba taldeak Bon Scot Band ekarriko du aurten… ACDC zalea zara?**
Elizondon jo zutenean ikustera joan nintzen, baina elkartean ni baino zaleagoak direnak badira.

**Diru gehiago izanez gero, gazteentzat zer ekarriko zenuke?**
Heziketa oinarritzat duen ekitaldi kultural ezberdinak bultzatuko nituzke.

**Bazkari aitzineko ginkanarendako entrenamendu berezirik egiten ari zara?**
Ez, parte hartzeko gogoak izatea nahikoa dira.

**Bazkaltzeko tenorean, zein duzu platerik gogokoena?**
Bazkaria baino, bazkalostea dut gustoko.

**Beraz, bazkalondoan, errekara sartzen animatzen zara oraindik edo adinak ez du barkatzen?**
Adinak ez du barkatzen.

**Zer dute faltan eta zer soberan Doneztebeko bestek?**
Batzuk kontzertu on bat faltan botatzen zuten eta aurten lortuko dugu. Baina nik, ez diot gabeziarik aurkitzen.



**Jokin APEZETXEA**
***Doneztebeko Gazte Burrunba elkarteko presidentea***










KULTURA

# Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketako txapelak eskualdera

## Ioar Tainta lesakarra eta Alazne Untxalo iturendarra izan dira txapeldun

ttipi-ttapa

Nafarroako eskolarteko bertso txapelketaren finalak jokatu ziren Larraintzarren maiatzaren 27an. Goizean, 14 urte artekoak aritu ziren. Eskualdetik ordezkaritza zabala zegoen kategoria honetan: Julen Baleztena beratarra, Ioar Tainta, Josu Sanjurjo eta Gorka Sanjurjo lesakarrak, Adur Iantzi igantziarra, Ane Intxausti eta Ainara Saralegi leitzarrak, Maialen Belarra doneztebarra, Irati Arrieta sunbildarra, Ixiar Baztarrika iturendarra eta Amaia Elizagoien oronoztarra. Hauekin batera, Iruñeko Haizea Beruete, Haizea Huarte eta Amaia Baldez, Irurtzungo Egoitz Karrion eta Barañaingo Amets Laskibar lehiatu ziren.


Utzitako argazkia

**Alazne Untxalo iturendarra, txapela jaso ondotik kantari.**

Hamasei bertsolari hauen lehendabiziko ariketen ondotik, sei gelditu ziren azken saiorako, seiak ere eskualdekoak. Azkenean, Ioar Tainta lesakarra izan zen txapeldun eta Josu Sanjurjo lesakarra txapeldun orde. Gibeletik sailkatu ziren Maialen Belarra, Amaia Elizagoien, Ixiar Baztarrika eta Julen Baleztena.

Arratsaldean, 14 eta 18 urte tartean dituztenen arteko finala jokatu zen. Hemen ere eskualdeko lau ordezkari genituen: Iturengo Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo, Berako Garazi Taberna eta Iruritako Iñaki Aleman. Hauetaz gain, Iraizozko Ekaitz Astiz, Berueteko Aitor Arangoa, Aurizko Aimar Karrika, Barañaingo Xabi Salvador eta Etxarriko Unai Artieda aritu ziren finalean. Lehenbiziko ariketak egin ondotik, laukotea gelditu zen txapela jokatzeko: Aurizko Aimar Karrika, Berako Garazi Taberna, Berueteko Aitor Arangoa eta Iturengo Alazne Untxalo. Azkenean, iturendarra nagusitu zen. Bigarren postua Aitor Arangoarentzat izan zen eta ondotik sailkatu ziren Aimar Karrika eta Garazi Taberna.

Kategoria bakoitzeko txapeldun eta txapeldunordeek ekainaren 24an Euskal Herriko txapelketan lehiatzeko aukera izanen dute Altsasun.



## «Bidasoa» liburua argitaratu du Nafarroa Oinezek

ttipi-ttapa

Nafarroa Oinezen alde argitaratu den «Bidasoa» liburua aurkezteko Jon Abril, Isabel Millet eta Labiaga ikastolako hamar haurrek prentsaurrekoa eskaini zuten ekainaren 2an Berako liburutegian. Liburuan ageri dira Luis Otermin eta Emilio Zazu argazkilariek ateratako 30 argazki. Testuak, berriz, Isabel Millet, Joxan Oiz eta Edu Zelaietarenak dira. Argazki guziei buruzko testuak hiru hizkuntzetan egin badira ere, Isabel Milletek zehaztu zuen bezala, ez dira hitzez hitzezko itzulpenak. Liburua 12 euroan salgai dago.


















BERA

# Ekobera azokaren bigarren edizioa ekainaren 24an eginen da

Produktu ekologikoak ikusi eta erosteko aukera izanen da

Amaia eta Ainhoa

Joan den urteko arrakasta ikusirik, datorren ekainaren 24an produktu ekologikoen azokaren bigarren edizioa ospatuko da Beran. Goizeko 10:00etatik 14:00etara Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko artisauen produktuak ikusi eta erosteko aukera izanen da Altzaten. Berako Musika Eskolak ere kalejira eginen du. Hainbat erakustaldi ere antolatu dira: ardien ilemoztea, eztia, artilea... Asteburu bateko egonaldia eta afari bat zozketatuko dira bukaeran.


ARTXIBOKOA
**Joan den urteko Ekoberan, ikusmin handia piztu zuen ardien ilea mozteko erakustaldiak. Aurten ere izanen da halakorik.**

### Lorategiak apaintzen auzolanean

Berako Udaleko Herrilan Batzordetik duela aste batzuk auzolanean aritzeko deialdia egin zuten, herriko eremu berdeak loreekin apaintzeko, hain zuzen. Udalak loreak eta materiala jartzen ditu eta trukean herritarrek, lorezaintza arduradunekin batera, landaketa eta apainketa lanak egiten dituzte. Bizilagun eta lorezaintza arduradunen artean eremu bakoitzak dauzkan beharrak aztertzen dituzte eta ondoren hasten dira lanean. Dagoeneko auzo batzutan hasi dira txokoak edertzen, adibidez, joan zen asteazkenean, ekainaren 7an, arratsaldeko 17:00etan hasi ziren Herriko Etxeko Plaza, Plaza Zaharra eta Burga auzoan. Bileratan parte hartu duten gainerako auzotarako deialdiak ere abudo eginen dira.

### Igerilekuak irailaren 10a bitartean zabalik

Pasa den asteburutik aitzinera, irailaren 10a bitartean, igerilekuak zabalik izanen dira. Bainu ordutegia 11:00etatik 20:00etara izanen da. Urtero bezala eguneko sarrera edo abonoak egin daitezke. Abonoa egiteko, ekainaren 10etik aitzinera Nafarroako Kutxako ordainagiria igerilekura eraman beharko da. Igerilekuan ikastaro ezberdinak ere antolatu dira aurtengoan: flotatzen ikastea, igeri egiten ikastea, hobekuntza, helduentzako igeriketa ikastaroak, aquaerobika, ur jokuak, tenis ikastaroa... Bertzalde, Toki Ona kiroldegian ere hainbat ikastaro egiteko aukera izanen da udan: ciclo indoor, erlaxazio eta meditazio praktikak, aerobika, dantzak (salsa, cha-cha-cha, regueton, hip-hop, break dance). Igerilekuko abonu eta gainerako ikastaroen inguruko informazio gehiago eskatzeko kiroldegiko 948630215 telefonora edo 012ra deitu dezakete interesatuek. Ikastaroetako izen emateko epea ekainaren 30ean bukatuko da.

## FLASH

### Ertz Italian Tour 2006

Ertz Elkarteko kideek toki auniztan ari dira emanaldiak eskaintzen. Elkarteko bi kide orain Italian daude beraien proiektuak erakusten. Zehazki, aste honetan, ekainaren 12tik 16ra bitartean Iñigo Telletxea eta Xabier Erkizia Erroman izanen dira Ertz Italian Tour 2006 biran, kontzertuak, aurkezpenak eta bertze eginez. Bertzalde, azken urtetan Ertzek eta Kultur Batzordeak ekain hasieran antolatzen zuten "Ertz bertze musiken jaialdia" beranduago izanen da aurten, irailaren 16 eta 17an seguruenik.

### Erakusketa

Kultur Batzordeak antolatuta, ekainaren 15etik uztailaren 2ra grabatuen erakusketa izanen da. Equipo Saisaren lanak kultur etxean ikusgai izanen dira asteartetik igandera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (igande arratsaldetan itxia).

### Gure Txokoaren besta eguna uztailaren 1ean

Gure Txokoa elkartearen 75. urteurrena dela eta, «GURE besta eguna!» antolatu da uztailaren 1ean. Egitarau zehatzaren berri hurrengo alean emanen dugu, baina bazkarirako txartelak ekainaren 25a arte erosten ahal dira Errekalde, Ikuilu, Lixoia eta Agaran.

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea
Eguneroko menua eta asteburutan menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

SAROBE okindegia
SANDERS pentsuak
Eztegara, 41 - Tel: 948 630 699 - BERA

BAR BOTXO OSTATUA
✆ 948630052-Zalain-BERA

LESAKA

# VIII. Mendi Itzulia ekainaren 25ean antolatu du Beti Gaztek

## Bertzalde, Haurraren Eguna larunbat honetan ospatuko da

Aitor AROTZENA

Ekainaren 25ean eginen da Beti Gazte elkarteak zortzigarren aldiz antolatutako Mendi Itzulia. Aurten ere bi ibilbide izanen dira aukeran: luzeena, 35 kilometrokoa, plazatik abiatu eta Maurrenekoborda, Baldrun, Alkaiaga, Zalain-Zoko, Zuluetako zelaia, Urteagako lepoa, Gardelkopagoeta, Agiña, San Anton, Aritxulegi, Bianditz, Ikatzulo, Goiko-Iraga, Olazarko presa eta Txakainen barna berriz ere plazara itzuliko da. Ibilbide laburrak 8 kilometro guttiago izanen ditu eta Agiñatik zuzenean Ikatzulora joanen da, Bianditzetik pasatu gabe. Gainerakoan, ibilbide berbera izanen da.

Izen ematea Plaza-Zaharrean egin beharko da 6:45etik 7:30era eta 7 euro ordaindu beharko da (5 euro bazkideek).

### Haurraren Eguna ekainaren 17an

Irain eta Otxogorrinea Guraso Elkarteek Haurraren Eguna antolatu dute larunbat honetarako, ekainaren 17rako. 11:00etatik aitzinera haurrendako jokoak izanen dira eta arratsaldez, 17:00etan Patxin eta Potxin pailazoak Plaza Zaharrean.

### Musika eta dantza

Ekainaren 21ean ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko du Musika eskolak Alhondigan 18:30ean. San Juan gauean, Embrujo Andaluz dantza taldea eta *Coro rociero* izanen da Onin errekan.







UTZITAKO ARGAZKIA

***Irantzu Pastorrek irabazi du Sanferminetako kartel eta azal lehiaketak***

**Joan den urtean ere Irantzu Pastor Ordokik egindako kartelak iragarri zituen Sanferminak. Aurten, kartelak ez ezik programako azalak ere Irantzuren diseinua izanen du, berak irabazi baititu bi lehiaketak (ezkerrean kartela, eskuinean programako azala). Programaren gibeleko azalean, berriz, Paola Oskozek egindako marrazkia agertuko da, berak irabazi baitu ttikienei eskainitako lehiaketa.**



PERTSONAIA

Ioar TAINTA

### Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketan txapeldun

Euskal Herriko Bertsolari txapelketa nagusiaren finalean, 13.000 entzulerekin gainezka zegoen BEC-en ozen eta lotsagabe kantatzen aditu zutenek, bertsotarako dohainak dituen plaza-neska deskubritu zuten. Dohain horiek txapel batekin hornitu ditu orain Ioar Tainta Noble herritarrak, maiatzaren 27an, Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketa irabazi baitzuen Larraintzarren, 14 urte arteko kategorian. Ez zen herriko ordezkari bakarra izan maila honetan: Josu Sanjurjo txapeldunorde izan zen eta honen anai ttikia ere, Gorka, finalean izan zen. Bortzirietako bertso eskolatik kimu berriak loratzen ari direnaren seinale. Ioar eta Josu Euskal Herriko txapelketaren finalean arituko dira orain, Altsasun ekainaren 24an, bertze herrialdeetako txapeldun eta txapeldunordeekin batera.



Toailak-Manteleriak-Oheko maindireak
Eskolako haurren mantalak etab... bordatzen ditugu
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusa peña bakoitzaren logotipo eta izenekin bordatzen ditugu
Etorri Plz. Berria 4-ra eta ikusi bertako eskaintza!!! Tel: 948 627 660 - 689 481

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasoila etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)



## ETXALAR



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

# Herriko elizari buruzko liburuxka argitaratu du Pello Apezetxeak

### Giro onean joan zen XIV. Gasna Feria Eguna

**Joseba eta Nerea**

Pello Apezetxea Zubiri herriko apezak elizari buruzko liburuxka interesgarria argitaratu berri du. «Bi erreka arteko Andre Maria Eliza» izenburupean, 32 orrialdeko lan zabal eta dokumentatua osatu du, argazki frankoz lagundua. Eliza sortu zenetik hasita, egin diren handitze eta egokitze lan guztiak, erretaularen eta iduri desberdinen aipamenak, barrenetik eta kanpotik izan dituen itxura aldaketak, organoa eta ezkilen gaineko xehetasunak, hilarrien ingurukoak... eta bertze hainbat datu irakurri daiteke liburuan. Urritzokieta eta Antsolokueta auzoetan dauden kalbarioei eta Santa Krutz ermitari ere egiten zaio erreferentzia.

Lan txukuna eta irakurtzeko erraza da. Etxalarko historia, urtez urte, ikusi eta bizitu duen Andre Maria Elizak zenbaterainoko garrantzia izan duen –eta duen– erakusteko ahalegin ttikia da liburua. Herriaren historiaren parte eta etxalartar guztion ondarea den tenpluaren datu-bilketa paregabea. Jakitea beti mesede da eta etxetik hurbileko gauzen inguruan bada, aunitzez hobe. Hortaz, munduko historia pixka bat utzita, bizi garen herriaren gaineko historia ezagutu eta ikasteko aukera polita da Apezetxearen liburua. Urteetan iraunen duen altxor ttikia.





ARGAZKIAK: NEREA MITXELTORENA ETA JOSEBA OLAGARAI

## Gasna eta Artisau Feria eguna

Giro ederrean eta eguraldi eguzkitsuarekin joan zen Gasna eta Artisau Feria Eguna ekainaren 4an. Ez zuen deusek hutsik egin. Artisauak, eskulangileak, gasna saltzaileak, trikitilariak, talogileak, eskulan erakusketa, dantzariak... urtero bezala, besta egun polita izan zen plaza bazterrera hurbildu ziren guztientzat. Altxata Kultur Elkarteko antolatzaileak hagitz gustura agertu ziren bai jendearen aldetik izandako harrerarekin, bai egunak izandako martxarekin. Goitian, herriko trikitilariek eskainitako saioa ageri da. Beheitian, Gasna Lehiaketako irabazleak. Etxalartarren artean Intzeko Bordako Josetxo Ariztegik eraman zuen lehenbiziko saria eta Basateko Bordako Isidro Ariztegik bigarrena. Gainerakoetan, Urrozko Nati Telletxearen gasna izan zen irabazle bigarren urtez segidan. Orabideako Antonio Arburuaren gasna gelditu zen bigarren eta Urdazubiko Manuel Bergararena hirugarren.













IGANTZI

# Heldu den asteko larunbatean ospatuko da San Juan Xar Eguna

## Besta eguna izan ohi da herriko jubilatuentzat

Oskar TXOPERENA

Heldu den asteko larunbatean dugu San Juan Xar eguna. Astehondarrean egokitu izanak jende aunitz erakarriko du segur aski San Juan Xarrera, urtero inguruko herrietatik etortzen direnez gain, aunitz izanen baitira bertaratzeko larunbata aprobetxatuko dutenak.

Herriko jubilatuek hitzordua izaten dute San Juan Xar egunean. Orain dela hogeita bortzen bat urte sortu zuen Biltoki Elkarteak herriko jubilatu guziak mahai inguruan biltzeko ohitura. Ez zen orduan jubilatu elkarterik izaten. Baratzondo Elkartea sortu zenez geroztik berari dagokio besta antolatzea eta aurten ere zintzo-zintzo banatu ditu gonbidapen orriak. Egun horretan San Juan Xarren emanen den meza entzun ondotik, 14:00etan Baratzondon bilduko dira jubilatuak otordu ederra egitera.

### Udako bi ikastaro

Udako bi ikastaro edo ekitaldiren berri jakin dugu azken aldi honetan. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, udaleku irekiak izenen dira aurten ere Igantzin. Hasiera batean astean hiru egunez (astelehen, asteazken eta ortziraletan) 10:00etatik 13:00etara egiteko asmoa dago, uztailaren 17an hasi eta abuztuaren 11ra arte. Izena emateko epea ekainaren 12az geroztik zabalik dago Euskara Mankomunitetan (948.634125).

Bertzalde, igeriketa ikastaroak ere izanen dira uztailean. Aurten arratsaldez emanen dira, 17:00etatik aitzinera. Uztailaren 3tik 21era arte iraunen dute eta izena emateko epea aste honetan berean akautuko da, ekainaren 16an hain zuzen. Beraz, parte hartzeko asmoa daukanak lehen bait lehen joan beharko du Herriko Etxera.




ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Aurten ere, udaleku irekietan eta igeriketa ikastaroetan parte hartzeko aukera izanen dute herriko neska-mutikoek.**



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### *Igantziarrak «Quebrantahuesos» txirrindula proba gogorrera*

**Dozena inguru lagun joanen dira heldu den larunbatean Sabiñago aldera, "Quebrantahuesos" proba famatua egiteko asmoarekin. Bortz izanen dira 205 kilometrokoa egiten saiatuko direnak: Xabier Aranguren, Iñaki Hita, Iñigo Telletxea, Mikel Urtxegi eta Mikel Arburua. Orain dela aste pare bat egon ziren inguruko zenbait mendate egiten eta argazki honetan Portalet igotzen ageri dira.**



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### *Haurraren Eguna*

**Ekainaren 1ean izan zen ikasturte akabilako Haurraren Eguna. Azken urteotan ohiko bihurtu denez, gaztelu haizatuak eta kotxe ttikiak izan ziren haurrentzat. Aste bat bertzerik ez zaie falta ikasturtea akautzeko. A zer lasaitasuna!!**

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Tel: 948 634 179
ARANTZA

ATERPE
ALBERGEA · JATETXEA

ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

xaretik
• komunikazioa eta publizitatea.
• internet eta multimedia proiektuak.
• informatika aplikazioen programazioa.
• prestakuntza.
• aholkularitza informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien arloan.
www.xaretik.com • Tlf: 948 635 386

ARANTZA

# AEKko barnetegiak izanen dira aurten ere uztaila eta abuztuan

Urte mordoxka daramate Aterpean udako barnetegiekin

Nerea ALTZURI



ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

**Euskara ikasi eta praktikatu ez ezik, herria girotzen dute eta herritarrak harremanak izaten dituzte Aterpeko barnetegian uztaila eta abuztuan izaten diren euskaldun berriek.**

Ekainaren erdian gaude. Laister eskolako umeak oporraldian izanen dira eta hainbat lagun ere udako atsedenaldia nola antolatu prestatzen ariko dira. Urte aunitzetako esperientziarekin, Arantzako Aterpean aurten ere udako bi hilabeteetan AEKko barnetegiak izanen dira. Urte osoan Euskal Herriko xoko gehinetatik haur eta gaztetxoak astebeteko edo egun batzuetako egonaldiak egiten dituzte Aterpean, euskalduna den xoko bat aukeratzen baitute euskaraz mintzatzeko.

AEK-ko barnetegiak berriz, uztailaren 3tik hasi eta lau hamabortzaldietan talde ezberdinetan banatuko dira. Herriko eskolan klaseak izanen dituzte eta egonaldia berriz, otorduak eta lo egiteko zerbitzuak alegia, Aterpean emanen dituzte. Uztailan hasi eta abuztuaren 31a bitare beraz, herrian bixitasuna areagotuko da, euskaraz ikasi eta praktikatu nahi duten adin eta leku ezberdinetako kuadrilekin.

Klaseekin batera, tailerrak eta irteerak ere egiten dituzte, hala nola, herriko xokoak ezagutu, eskualdeko hedabideetara bisita, Zugarramurdi eta Urdazubiko kobazuloetara ateraldiak...Herritarrekin hartueman zuzena, etxekoa izaten dute barnetegikoek: herriko ekitaldietan parte hartuz, ostatu eta dendetan tragoxka eginez, hameketako eta erosketak eginez...

Hirugarren urratsetik hasita maila ezberdinetako lagunak euskaraz mintzatzea eskertuko dute. Herri euskaldunaren izena eta izana manten ditzagun beti, udan ez ezik urte osoan.

### *Lehendabiziko Jaunartzeak*

Heldu den igandean, bestaberri edo korpus kristi eguneko ospakizunarekin batera jaunartzeak izanen dira ohiturari jarraituz. Aurten lau neska mutilek komunioa eginen dute: Mikel Oteizak, Elixabet Elizondok, Sara Almandozek eta Albaro Arratibelek.

### *Herri kiroletan Berroetan*

Joan den ekainaren 4an eta arratsaldez, herriko herri kiroletako neska mutilak Berroetako bestetan aritu ziren. Basaburua eta Igantzirekin batera erakustaldi polita egin zuten proba konbinatuan eta soka tiran. Ondotik merendua izan zuten eta musikarien doinuekin dantzan ere ikusi genituen frontoian. Seguru gaude herri kirol jolasetan lagun aunitz egin dituztela eta udan herriko besta ezberdinetan parte hartuko dutela.






ARKUPEAK

# Urrezko Ezteiak eta 85 urte aurten bete dituztenei omenaldia egin zitzaien

## Ekainaren 6an Gorraizen

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak urteko bazkaria egin zuen Gorraizen. Eskualdeko 900 bat lagun bildu ziren, aurten Urrezko Ezteiak bete dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete dituzten bazkideak omentzera. Meza, Fernando Sebastian Nafarroako artzapezpikuak eman zuen eta berak banatu zituen sari eta oroigarriak.



**URREZKO EZTEIAK**

| | |
|---|---|
| Antonio TELLETXEA ARRUABARREN-Paula Arriada AROTZENA | ARRAIOZ |
| Jose FAGOAGA GOIA-Mª Lourdes LOPEZ ZUBIETA | BERA |
| Antonio TELLETXEA ESTRADA-Gloria MAIA ANDUEZA | BERA |
| Alberto ZABALO OTXANDORENA-Irene BARASA MIGUEL | DONEZTEBE |
| Jose Ramon ALZAGA MARTIARENA-Pepita ISASA OLASKOAGA | IRUN |
| Angel ESPARZA MUERZA-Rosario MUÑOZ BERBES | IRUN |
| Lorenzo LASARTE OTERMIN-Mª Cruz BARAIBAR EZKURDIA | LEITZA |
| Fermin LAZKANO BARAIBAR-Maria SESTORAIN LARREA | LEITZA |
| Fernando OIARTZUN IRIARTE-Itziar SAGASTIBELTZA SAGASTIB. | LEITZA |
| Miguel ZABALETA GOGORTZA-Micaela ZABALETA ZABALETA | LEITZA |
| Miguel ZABALETA ZABALETA-Feliciana ZABALETA ZESTAU | LEITZA |
| Francisco IBARGARAI PESCADOR-Asuncion CRESPO CRESPO | NARBARTE |
| Juan MINDEGIA ARIZTEGI-Mª Karmen MITXEO LEGARRETA | OITZ |
| Pedro J. URRUTIA GRAJIRENA-Isabel Lucia JUANENEA LASARTE | SALDIAS |
| Evaristo GRAZIARENA MITXELTORENA-Josefa ARRETXEA BERTIZ | SUNBILLA |
| Agustin JORAJURIA ARRETXEA- Maritxu LASTIRI MANTEROLA | SUNBILLA |

**85 URTEKOAK**

| | |
|---|---|
| Pedro BIDART JAURENA | ARIZKUN |
| Mª Dolores AGIRRE ELTZAURDIA | BERA |
| Antonio LEGIA GORRIA | BERA |
| Juan Martin MAIA SANZ | ETXALAR |
| Jose PAUL CORRALES | ETXALAR |
| Juan SARRATEA MENDIBURU | ERRATZU |
| Victoria LARRABURU MITXELTORENA | GAZTELU |
| Jose ESKUDERO IPARRAGIRRE | GOIZUETA |
| Saturnino GONZALEZ ARENAL | IGANTZI |
| Manuel LANCHAS FERREÑO | IRUN |
| Mª Teresa LOPEZ GARCIA | IRUN |
| Anita IPARRAGIRRE ALTAMIRA | ITUREN |
| Cornelio IRIBARREN ARRIETA | ITUREN |
| Jesusa TELLETXEA OTXANDORENA | ITUREN |
| Micaela APEZETXEA ARRIBILLAGA | LEITZA |
| Ignazia ASTIBIA LASARTE | LEITZA |
| Ramon ASTIZ ARRARAS | LEITZA |
| Justo BERASATEGI SUKUNTZA | LEITZA |
| Gregorio CEBALLOS BARCENAS | LEITZA |
| Iñazi ETXEZARRETA EIZAGIRRE | LEITZA |
| Jose Joaquin LABAIEN URKIOLA | LEITZA |
| Mª Jesus SAGASTIBELTZA SARALEGI | LEITZA |
| Asuncion CRESPO CRESPO | NARBARTE |
| Fermin MITXEO GALARRETA | OITZ |
| Mª Villar OSAKAR AGERREBERE | ORONOZ |
| Clara AIZEGA ETXABE | SALDIAS |
| Modesto GAGO LEKAROZ | SUNBILLA |
| Francisco GRAZIARENA MITXELTORENA | SUNBILLA |
| Miguel GELBENTZU MANTEROLA | SUNBILLA |
| Isabel INDA ARREGI | SUNBILLA |
| Teresa ETXEBERE INDA | URDAZUBI |
| Asuncion OLAGARAI AGERREBERE | URDAZUBI |
| Jesus MUTUBERRIA ERRO | ZUBIETA |




LANA

# 599 langabetu eskualdean

## Apirilean baino 43 guttiago

ttipi-ttapa

Langabeziak, urte hasieratik daraman beheitirako martxarekin segitu zuen maiatzean ere. Apiril hondarrean 642 lagun apuntatuak ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Hilabete beranduago kopuru horrek 43 lagunetan beheiti egin zuen eta 599 ziren. Emakumeak izan dira jautsiera hori gehien somatu dutenak, 28k aurkitu baitute lana maiatzean. Halere, oraindik 355 dira langabezian daudenak. 15 gizonek lana topatu dute eta 244 daude langabezian. Lan arloka, industrian 26 langabetu guttiago daude (172) eta zerbitzuetan 22 guttiago (336). Eraikuntzan berdin mantendu da kopurua (52), nekazaritzan 2 langabetu gehiago daude (16) eta aitzinetik lan egin gabeko langabetuen kopuruak ere 3 lagunetan goiti egin du (23).

Urtarrilean 715 lagun zeuden langabezian eta geroztik, hilabetez hilabete, etengabe beheiti egin du. Udaberri eta uda partean ostalaritza eta zerbitzu arloan sortzen diren lanpostuengatik izan daiteke jautsiera hau, baina egia da iazko maiatzean baino (675 baitziren) langabetu guttiago daudela aurten.

## SUNBILLA

# Ekainaren 15ean zabalduko ditu ateak udal igerilekuak

### Igeriketa ikastaroa uztailean emanen du Aritz Arriolak

**Jaione OTXANDORENA**

Ekainaren 15ean, ortzeguna, emanen zaio hasiera aurtengo udal igerilekuko denboraldiari. Joan den urtean bezala, herriko bi gaztek, Aritz Arriola eta Naiara Arretxeak hartuko dute igerilekuaren eta bertako ostatuaren ardura. Igerilekuaren ordutegia, goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte izanen da, baina arduradunek jakinarazi digutenez, denboraldi hasieran, ekainaren 23a arte hain zuzen ere, goizeko 11etan ireki beharrean, eguerdiko 13:00-etan irekiko dute. Aurtengo igerilekuko sarreren balioa ondoko koadroan ageri dena izanen da.

**Igeriketa ikastaroak uztailean emanen ditu Aritz Arriolak**

Bertzalde, Aritz Arriolak erran digunez, urtero bezala, uztaileko hilabetean igeriketa kursilloak emanen ditu. Kursilloetan izena emateko zerrendak igerilekuan bertan jarriko dira, eta izena ematen duen jendearen arabera eginen dira taldeak eta ordutegiak.



Sei urte arteko neska-mutikoek igerilekura sartzea doan izanen dute.

**2006 UDAKO DENBORALDIKO PREZIOAK UDAL IGERILEKUAN**

| | HIRUHILABETEKOA | HILABETEKOA | EGUNEKOA |
|---|---|---|---|
| 0-6 URTEAK | DOAN | DOAN | DOAN |
| 6-12 URTEAK | 15,5 euro | 11 euro | 1,5 euro |
| 12-18 URTEAK | 21,5 euro | 17 euro | 2 euro |
| 18 urtetik goiti | 33,5 euro | 23 euro | 3,5 euro |

## Ulibeltzak mendi taldea Etxebertzekobordara

Uztailaren 2rako ibilaldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak. Oraingoan Orabidean dagoen Etxebertzekoborda jatetxera izanen da ibilaldia. Goizaldean herritik atera eta eguerdirako iritsiko dira. Jatetxean bertan bazkaldu eta arratsaldean kotxeetan itzuliko dira herrira. Ibilaldi honetan izena eman nahi duenak, Itturburu ostatuan dagoen zerrendan egin beharko du ekainaren 25a baino lehen.



## SALDIAS



ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZIA

**Argazkia, duela 45-50 urte Saldiasko iñauterietan ateria da: Arantzako Ebaristo Mitxelena soinulariarekin batera Joxe Elizalde, Celestino Mutuberria, Josetxo Mitxeo, Dolores Ezkurra, Martinika Baleztena, Juan Leon Etxekolonea, Pakita Baleztena, Camino Mutuberria, Sagrario Erasun, Mari Carmen Ezkurra, Rosita Mitxeo, Bibiana Etxekolonea, Migeliko Mutuberria, Consuelo Balda eta Rosa Mindegia.**

# San Juan bestak ekainaren 23tik 26ra

### Ostirala 23
**BEZPERA**

**20:00etan:** zopak herriko ostatuan.
**22:00etan:** San Juan suak.
**Gauez: AMETS** taldearekin dantzaldia.

### Larunbata 24
**SAN JUAN EGUNA**

**9:00etan:** Argisoinua herrian zehar txistulariekin.
**11:30ean:** Meza Nagusia.
**12:30ean:** Herriko gazteen arteko herri kirolak.
**13:00etan:** Herrikoentzat hamaiketakoa
**18:00etan:** Pilota Partiduak.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia **TRAKETS** Taldearekin.

### Igandea 25

**13:00etan:** aizkora apostua: MINDEGIA-OTEGI / LARRETXEA-TELLETXEAren aurka.
**18:00etan:** Pilota partiduak.
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia **MODESTO** akordiolariarekin.

### Astelehena 26

**Goiz eta arratsaldez:** haurrendako jokuak, karts eta gaztelu puzgarriak
**11:00etan:** herriko mus txapelketa.
**14:00etan:** HERRI BAZKARIA Etxeberria eta Agirre bertsolariekin
**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia **MODESTO** akordio-

## ERREPIDEAK

# Ibilgailuen Azterketa Teknikoa eskualdean eginen da 2009. urtetik aitzinera

### Oronoz-Mugairin, Bertizaranan edo Donezteben jarriko da

**ttipi-ttapa**




Ibilgailuen Azterketa Teknikoen sarea zabaltzeko hitzarmenak sinatu zituen ekainaren 5ean Nafarroako Gobernuak «Revisiones de Navarra» eta «Tuv Rheinland Navarra» enpresekin. Baztan-Bidasoa eskualdeari dagokionez, 2009. urterako azterketa gune bat idekitzea aurrikusi da. Kokagune zehatza ez dute oraindik zehaztu. Oronoz-Mugairin ideki nahiko lukete, baina momentuz, Narbarte, Legasa eta Doneztebeko aukerak ez dituzte baztertu.

Sinatutako hitzarmenak hamar urteko iraupena du. Gaur egun indarrean dagoena bukatzen denean hasiko da, hain zuzen ere, 2009ko maiatzaren 24an. Gaur egun, Nafarroan, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa pasatzeko lau leku besterik ez dira, Iruñean, Noainen, Azkoienen eta Tuteran. Hori dela eta, derrigorrezkoa den azterketa pasatzeko, eskualdeko jendeek ibilgailuak Iruñera edo Behobiara eraman behar izaten dituzte.

### *Dirulaguntza errepideak egoera onean atxikitzeko*

Heldu diren hiru urterako, Nafarroako Gobernuak eskualdeko errepideak egoera onean gordetzeko dirulaguntza onartu du. Baztan-Bidasoako errepideetaz Oronoz-Mugairiko zentroa arduratuko da. Lan hori burutu ahal izateko 8,5 milioi euro izanen ditu 2007. urtetik 2010. urtera arte gastatzeko.

MITXEO zerrategia, S.L.
Eraikuntzarako estrukturak eta enbalajeak
Ongi pasa bestak!!
Zubizarra SALDIAS · 948 615 044 · 948 615 108

Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei
✆ (+34) 948 635458

HEZKUNTZA

# Literatura, etnografia, irakurmen eta bertso-paper sariak banatu ziren

Guzira 1.966 lan aurkeztu dira eta hainbat sari eskualdera etorri dira aurten ere

**ttipi-ttapa**

Ikastetxeetan euskaraz egiten diren lehiaketen sariak banatu zituen Nafarroako Gobernuak ekainaren 2an. Poesia, narratiba, Jose Maria Satrustegi Etnografia saria eta irakurmen eta deklamazioan Pedro Diez de Ultzurrun Saria eta bertso-paperak ziren mailak eta guzira 1.966 lan aurkeztu ziren. Horietatik 256 narratiban, 155 poesian, 1.534 bertso paperetan, 8 etnografian eta 13 irakurmen eta deklamazioan. Lehiaketa hauetan denetara 29 sari banatu dira, 26 banakakoak eta 3 taldekakoak. Bertze urteetan bezalaxe, sari aunitz eskualdeko ikasleek eskuratu zituzten.



Argazkia: Nafarroako Gobernua

**Ekainaren 2an banatu zituen Nafarroako Gobernuak aurtengo lehiaketetako sariak. Lanak liburua eta CDtan bildu dira aurten.**

Poesian, Lehen Hezkuntzako lehen saria, Berako Ricardo Baroja ikastetxeko Joseba Martinez Guerrak eskuratu zuen. DBHko 1. eta 2. mailako lehen saria Goizuetako Andres Narbarte "Xalto" ikastetxeko Patxi Etxeberria Aranazek eskuratu zuen.

Narratiban, Lehen Hezkuntzako lehen saria Berako Ricardo Baroja ikastetxeko Ibon Erdozain Ibarrarentzat izan zen eta bigarren saria Goizuetako Garazi Loiarte Villarrentzat. DBHko 1. eta 2. mailako bigarren saria Berako Labiaga ikastolako Ainara Martin Irigoienek eskuratu zuen eta akzesita, ikastetxe bereko Maddi Sese Agararentzat izan zen. DBHko hirugarren eta laugarren mailako bigarren saria, Labiaga ikastolako Jon Zelaieta Danborienak eskuratu zuen, hirugarren saria Goizuetako Unai Loiarte Ansak eta akzesita, Labiagako Leire Barrutia Elizaldek.

Etnografian, DBHko 1. eta 2. mailako lehen saria, Goizuetako Uxua Huizi Rayorentzat izan zen.

Bertso-paperetan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako lehen saria, Leitzako Erleta ikastetxeko Martxel Intxausti Lasartek eskuratu zuen eta bigarren saria Berako Ricardo Baroja ikastetxeko Xabier Mayordomo Almandozek. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako bigarren saria Goizuetako Julen Arotzena Almandozek eskuratu zuen eta hirugarrena Baztan Ikastolako Amaia Asiain Zelaiak. DBHko 1. eta 2. mailako lehen saria, Doneztebeko Mendaur institutuko Maialen Belarra Eneterreagarentzat izan da eta hirugarrena Berako Labiaga ikastolako Julen Baleztena Rudirentzat. DBHko 3. eta 4. mailako bigarren saria Mendaur institutuko Iker Gorosterrazu Elizagoienek eskuratu zuen.

Irakurmen eta deklamazioan, Lehen Hezkuntzako bi sari nagusiak Leitzako Erleta ikastetxe publikora joan ziren. Bigarren ziklokoa Kontakatilu taldeak lortu zuen eta hirugarren ziklokoa Berritsu taldeak.

### Liburua eta CDak

Lan hauek eta 2005ean sarituak izan zirenak Lenarriak VI liburuan bildu dira, bi Cdrekin batera, eta saritutako ikasleek diploma, liburua eta bi Cdak jaso zituzten sari banaketa ekitaldian.






ITUREN

# Alazne Untxalo garaile Nafarroako Eskolarteko bertsolari txapelketan

Euskal Herriko txapelketan parte hartuko du ekainaren 24an

Arkaitz MINDEGIA

Maiatzaren, 27an Larraintzarren jokatu zen Nafarroako eskolarteko bertso txapelketako finala. Oraingoan ere herritarrak parte hartu zuten, Ixiar Bazterrika, Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalok. Ixiarrek, 14 urte arteko bere kategorian finalera pasatzea lortu zuen, baita saio polita egin ere.

Iker eta Alaznek 14 eta 18 urte arteko kategorian parte hartu zuten. Beraien lana ahalik eta hobekien betetzen saiatu ziren, baina finalera Alazne Untxalo pasatu zen. Ez hori bakarrik, 100 punturekin txapela irabaztea lortu zuen eta honela, Euskal Herriko txapelketan parte hartuko du ekainaren 24an Altsasun.



Argazkia: Mari Jose APEZTEGIA

### *Lehendabiziko jaunartzeak*

**Ekainaren 4an lehendabiziko jaunartzeak izan ziren herrian. 7 gaztetxoek jaunartu zuten lehen aldiz. Irati eta Itxaso Mindegia, Goizeder Mindegia, Aitz Aioroa, Mikel Altzuri, Aritz Fagoaga eta Jabier Seinek.**

### *Eskolako irteera*

Ekainaren 21ean eskolako ikasle guztiak azken irteera eginen dute. Goizean Donostiara joanen dira eta bertan barkoz ibili. Eguerdian Guadalupen bazkaldu eta egunari amaiera emateko Hondarribiko hondartzara bainatzera joanen dira.

ARANO



## Aparkaleku berria egin dute herrian

Kontxi KLABER

Kanposantua handitzeko obrak direla eta lur dexenteren beharra izan da eta udalak aukera ezin hobea aprobetxatu du. Frontoiaren atzekaldean lurrak kendu eta bidenabar, premiazkoa zen aparkalekua egin da. Izan ere askotan frontoia ireki behar izan da kotxeak herrian uztezkotan eta horrek suposatzen zuen frontoi gabe gelditzea. Orain berrogeita hamar bat kotxe sartzeko lekua prestatu dute eta herriari arindu ederra emanen dio. Herritik aparte bezte zabaltoki bat egin dute Oraunen.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA





# 2006

# Sanjoanak

ekainaren 22tik 25era

## ARIZKUN



# Sanpedroak

ekainaren 28tik uztailaren 2ra

## ERRATZU
## DONEZTEBE





Herriz herri,
bestaz besta




## MIGELENA anaiak

Erlojudenda · Bitxidenda · Sukalde eta bainuko altzariak
Etxetresnak · Sukaldeko tresneria · Zerbitzu teknikoa

Ameztia 1 eta 5 · DONEZTEBE
Tfnoak: 948 450 126
948 450 925
Mug: 677 525 292
689 004 841




- ✓ Gasolindegi zerbitzua
- ✓ Etxez-etxeko gasoil-zerbitzua
- ✓ Auto-garbitzaile automatikoa
- ✓ Presio bidezko garbiketa
- ✓ Autoaren barneko garbiketa

Leitzako errep, 49 · DONEZTEBE
Tel: 948 451 679 · Faxa: 948 450 857

## SANTESTEBAN
### Tailerrak

**Salmenta:**
berriak
ia-berriak (8-12 hilabetekoak)
bigarren eskukoak

**Mekanika, txapa eta elektrizitatea**

RENAULT



Leitzako bidea · DONEZTEBE
Tel: 948 450 282

## Ekainak 30 Ortzirala
## GAZTEEN EGUNA

**09:00etan:** Diana CORCOR txarangarekin
**11:00etan:** Udal Txikiari harrera udaletxean.
Ondotik, suziriaren jaurtiketa Alkate eta Zinegotzien eskutik.
**11:30ean:** Meza Nagusia, Udal Txikikoen agintepean.
Karts-ak eta puzgarriak Bear-Zana pilotalekuan, goizez eta arratsaldez.
**12:00etan:** Ginkana eta gazte jokoak, herriko gazteek antolaturik.
**14:00etan:** Gazteen bazkaria, Intzakardi parkean.
**16:00etan:** Ehiza ibilbidea Kaxernan.
**18:00etan:** Esku pilota partiduak, ERREKA eta TXARUTA pilota eskolen eskutik, herriko Udal pilotalekuan.
**20:00etan:** Txikien Musika taldearen erakustaldia, Santa Luzia plazan.
**22:00etan:** KONTZERTUA Santa Luzia plazan. Kataluniako **THE BOND SCOT BAND** eta herriko **D.A. BRUT & BLAI** taldeekin.
**01:00etatik 03:30era:** Dantzaldia **TRIKIDANTZ** taldearekin.



Gazte eta Haurrentzat egun ederra: ekitaldiak, bazkariak, jokoak, erakustaldiak, kontzertuak...




Bar El Cafe
Ongi pasa herriko bestetan!
MARTXARIK ONENA
Pintxoetan espezializatuak · Bokadilloak
Parrokia 3 · ✆ 948 450318 · DONEZTEBE

DONEZTEBE
ERAIKUNTZA MAKINA ETA ZERBITZUEN ALOKAIRUA
- Kamioi grua teilatuak egiteko eta moldatzeko
- Materialen garraioa
- Mailu, elektrizitate sorgailuak andamioak kompresorak...
Leitzako bidea · Tel: 948 451 793 / 659 702 694 · DONEZTEBE

PEUGEOT
CITROËN
EDERKI tailerra
Peugeot eta Citröen Agente Ofiziala
24 orduz grua zerbitzua
Hidraulika "latigilloen" moldaketa
Leitzako bidea ☎ 948 450525 · DONEZTEBE

P.J.M
Pedro J. Martin
Azienda tratularia
Ongi pasa herriko bestak !!
948 450 042
Martiñenea etxea · DONEZTEBE

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.
Injineru tekniko industriala
* Bulego teknikoa: proiektuak,obra zuzendaritzak, etab...
* Instalazio elektrikoak
* Etxeko eta industriako elektrizitatea
* Enpresen mantenimendua, etab...

Belarra Jatetxea
Ameztia karrika · DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 306

bixkiak
arropa denda
KIROL ETA
MODAKO
ARROPA DENDA
Arretxea 7, behea B2 • LESAKA
Tfnoa: 948 638 110

Egin behar dituzun lan txiki horientzat,
Gremioen koordinazioa
Alicia T. Erlanz
SERVI-LAN
ofizialo guztiak SERVI - LANen
Elizagibela, 5 · DONEZTEBE · Tel. 948 456193 Fax.948 450760

HONORIO TABERNA
GIZASEME ETA EMAKUMEENDAKO BOUTIQUE

Juanotena zurgindegia
• Ateak • Eskailerak • Leihoak •
Zurgin lanak orokorrean
Leitzako bidea • © 948 450211 • DONEZTEBE

BIDEGAIN ARRAINDEGIA
Jaime Urrutia, 22 · ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 496
Ameztia · DONEZTEBE
Tfnoa: 948 456 188
Ongi pasa bestak!!

1940 urtetik
Lácar Etxea
· Emakume eta gizonendako arropa
· Laneko arropa
· Mertzeria
· Etxe barnekoak:
Bisilloak, kortinak, edredoi nordikoak, maindireak, toallak, alfonbrak ...
· MOSHY almohadak
Sta Luzia karrika, 3 · DONEZTEBE · 948 450 162

KONGELATUAK:
Albondigak
Urdalazpiko,
oilasko, piper
eta arraultze kroketak
Esarte
AINTZINETIK PRESTATUTAKO JANARIAK
Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan
Ongi pasa bestak!!
Jaime Urrutia 35 · ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO

BLAS
Liburudenda
Eskolako materiala
Egunkariak
Aldizkariak
948 450 269
Parrokia 1
DONEZTEBE

BERATARRA
ARGIÑAK
Leitzako bidea, 66 · 8-2.c
Doneztebe: 670 489 337
Bera: 617 346 378
DONEZTEBE

Kilenium
kider
Tarima eta parket Flotagarriak
Tel: 948 451560 Faxa: 948 456148
DONEZTEBE

Clinica Denta
Irurita - Rubio
ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA
TXERTAKETAK
Leitza 948 610 713
Doneztebe 948 450 267

Maderas Zabala S.A
Kortinarako sistemak
Bertako eta inportazioko zurak
Oihan esplotazioak
Zerrategia eta sekaderoak
Tel.: 948 450135 · 948 450632
Faxa: 948 450498 · DONEZTEBE

## Uztailak 1 Larunbata

**08:00etan:** Betizuak merkatuko plazan.

**09:00etan:** Diana CORCOR txarangarekin.

**10:30etan:** Mus txapelketa ELCAFE ostatuko terrazan.

**11:00etan:** Betizuak, poniak eta bertze animali batzuk haurrentzat, merkatuko plazan.

**14:30etan:** Bazkari herrikoia Intzakardi parkean.

**19:00etan:** Betizuak merkatuko plazan.

**20:30ean:** **ORO DE MEXICO** mariatxi taldearen erakustaldia, Santa Luzia plazan.

**22:30ean:** Su artifizialak

**00:30etik 03:30era:** Dantzaldia **JALISKO BAND** taldearekin, Santa Luzia plazan.

Bazkari ederraren ondotik, eguraldiak laguntzen badu urtero bezala errekara sartuko dira


















# APEZTEGIA BERRIA, S.A.

Burdindegia · Ferretería




Elizagibela karrika, 1 · ☎ 948 450 994 · DONEZTEBE



San Pedro bestetako azken eguna ere, adin guzietarako ekitaldiz betea. Betizuak goiz eta arratsaldez, puzgarriak, aizkora apustuak, dantzaldia eta bukatzeko gaixoa ni.

## Uztailak 2 Igandea

**08:00etan:** Betizuak merkatuko plazan.
**09:00etan:** Diana CORCOR taxangarekin.
**10:00etan:** Tren Neumatikoa eta puzgarriak piszinan.
**11:30etan:** Meza Nagusia Parrokiako Koralaren erakustaldiarekin.
**13:00etan:** LESAKAko musika bandaren kontzertua.
**17:30etan:** Aizkora apustua Bear-Zana pilotalekuan.
**19:00etan:** Betizuak merkatuko plazan.
**20:30etik 22:45era:** Dantzaldia **JALISKO BAND** taldearekin, Santa Luzia plazan.
**23:00etan:** Besten amaiera eta gaixoa ni.












t

BESTETAKO
DVD ETA BIDEOAK
SALGAI

eskatu zurea

ttipi-ttapa TB
948 63 54 58

BESTAZ BESTA 06



sanpedroak06

Doneztebeko Udalak

besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta
bisitari
guziei

DONEZTEBE

# betiko

PVC eta aluminio aroztegia

· PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA · SALMENTA ETA INSTALAZIOA















- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

# Sanjoanak

## ekainaren 22 tik uztailaren 25ra

# ARIZKUN

### Ekainak 22 Ortzegune - bezpera egune

12:00etan: Diana, txupinazoa eta gazteen luntxa.

13:00etan: Txopo goratzea.

14:00etan: Txopo goratzaileendako bazkaria.

18:00etan: Antzara jokoa.

20:00etatik 22:00etara: IÑAZKI taldearekin dantzaldia.

22:00etan: Baztan-zopak.

00:00etatik aitzinera: IÑAZKI taldearekin dantzaldia.

05:00etan: Ziztor-jatea. Argi hastean ezkil-jotzea.

### Ekainak 23 Ortzileria San Juan bezpera eta Haurren Egune

10:00etan: Dianak.

11:00etan: Haurrentzako ginkana eta puzgarriak.

14:00etan: Haurren bazkaria. Atsalde guzian jokuak eta puzgarriak.

17:30ean: Plater tiraketa.

18:00etan: Txokolatada.

Ilunabarrean San Juan suak eta ezkil-jotzea. Ondotik antzerkia.

22:30ean: gaitak, mutildantzak…

0:00etatik aitzinera: Dantzaldia TXIMELETA taldearekin.

05:00etan: Gasna jatea. Argi hastean ezkil jotzea.

### Ekainak 24 Launbeta - San Juan egune

10:00etan: Dianak.

11:00etan: Meza Nagusia. Ondotik mutildantzak eta hameketakoa.

17:00etan: Pilota partidek.

20:00etatik 22:00etara: Dantzaldia TXIMELETA taldearekin.

22:00etan: Mutildantzak, gaitak…

05:00etan: Zinger-jatea. Argi hastean ezkil-jotzea.

### Ekainak 25 Launbeta- Zikiro egune

10:00etan: Dianak.

12:00etan: Mus iñezture.

14.00etan: Zikiro-jatea. Ondotik poteoa Doneztebeko txarangarekin.

20:00etatik 22:00etara: AGERRALDE akordiolariarekin dantzaldia.

22:00etan: Mutildantzak, gaitak…

00:00etatik: Dantzaldia AGERRALDErekin.





BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

J.L. Iturbide Irisarri
Lijatzeak · Barnizatzeak
T: 948 453 008 / 696 357 496
Tximindo karrika, 48A · 2.C · ARIZKUN

ARIZKUN zerrategia
zerrategia
zurezko teilatuak
Ongi pasa bestak!
Tel: 948 453 304 · Dantxarinea errep. · ARIZKUN







DOLAETXEA
ostatua
Bestak ongi pasa!
Tfnoa: 948 453002
ARIZKUN

ALEMAN ZERRATEGIA, S.L.
• Teilaturako estrukturak, duglas, pinua, haritza.
• Tarima.
• Portxeak tamaina egokian.
Ongi pasa herriko bestak!!!
Frantziarako errep. z/g • ERRATZU • ✆ 948 453173

iPARLA OSTATUA
Izpunero bokatak
eta pintxo beroak
Igandetan saida
Giro ona
948 453153
Aduana karrika · ERRATZU

ALBANTZENEA
Santi Dendarieta
OSTATUA-DENDA
Ongi pasa herriko bestak!
Albantzenea etxea, ERRATZU · Tel: 948 453 112

ZUBIPUNTA
ostatua
Besta onak opa dizkizuegu
Tel: 948 453248 · ERRATZU

ERROTABEREA
Anaiak
eraikuntzak
Ongi pasa bestak!!!
Nagusia · ERRATZU · Tel: 948 453 045

ttipi ttapa
Ongi pasa bestak!!
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR
Tel: 948 63 54 58
info@ttipi.net

Okindegia Jatetxea
Uxoa
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Espezialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea,
goxo goxoa!
Ongi pasa herriko bestak!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

# Sanpe[drok]

ekainaren 28 t[ik]

# ERRATZU

## Ekainak 28 Asteazkena
## bezpera egune

**10:00etan:** txupinazoa eta argi soinuak.

**Goizez eta arratsaldez:** Karts-ak, haur jokuak, puzgarriak...

**13:30ean:** Haurren bazkaria.

**19:00etan:** Futbito partida.

**20:00etan:** Ezkil jotzea.

**21:30ean:** Baztan zopak, Kastonean, **FRANTZISKO**-rekin.



## Ekainak 29 Ortzeguna
## San Pedro egune

**10:00etan:** Argi soinuak.

**12:00etan:** Meza nagusia.

**13:00etan:** Mutil dantzak, ondotik luntx-a.

**16:30ean:** Ginkana "Herri Kirolak".

**19:00etan:** "Los Gabilanes" mariatxiak.

**21:00etan:** Dantzaldia SALABERRI-rekin.

**22:00etan:** Mutil dantzak.

**23:00etan:** Kontzertuak Zubi Puntan.

**01:00etan:** Dantzaldia **SALABERRI**-rekin.



## Ekainak 30 Ortzileria

**10:00etan:** Argi soinuak.

**11:00etan:** Pilota partidak Gorostapolon.

**13:30ean:** Bazkal aitzineko zintzur bustitzea.

**14:30ean:** Zikiro jatea, zozketak, musika eta giroa!!!

**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia **IMUNTZO eta BELOKI**-rekin.

**22:00etan:** Mutil dantzak.

**22:30ean:** **PAMPI PORTUGAL** Iparla ostatuan.

**06:00etan:** Zinger-ziztor jatea.

## Uztailak 1 Launbeta

**10:00etan:** Argi soinuak.

**17:00etan:** Pilota partidak.

**19:00etan:** Bertso-poteoa, bertsolari eta Bizkargain fanfarrearekin.

**Arratsaldez eta gauez:** Dantzaldia **GAU-TXORIAK** taldearekin.

**22:00etan:** Mutil dantzak.

**22:30ean:** Su artifizialak.

**23:00etan:** Kontzertua **UFESTUEK** taldearekin.

# d r o a k

## k uztailaren 2ra

# DONEZTEBE

### Ekainak 28 Asteazkena

**20:00etan:** Suziria udaletxetik. Ondotik kalejira CORCOR txaranga eta herriko txistulariekin.

Ohiturazko zopak herriko jatetxe eta ostatu desberdinetan.

**00:15tik 03:30era:** Dantzaldia **GAUBELA** taldearekin Santa Luzia plazan.












MARIA
Gizon-emakumentzako ileapaindegia
ILEAPAINDEGIA
Kolore eta mozketetan azkeneko tendetziak
Ile bilduetan espezializatuak
Buru azalendako tratamenduak
Solariuma
Estensioak
ESTETIKA
Depilazioak
Manikura eta Pedikura
Makilaiak
Spray Sol
Aurpegiko tratamenduak
ORDUA ALDEZ AURRETIK ESKATU • Tfnoa: 948 450 922

AROZENA OSTATUA
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa:948450443



Aurtengo bestak umore ederrean pasatu
Merkatarien karrika 28
☎ 948 451826
DONEZTEBE



OLAZAR
aroztegia S.L.

· aroztegi metalikoa
· itxiera metalikoak
· aluminio aroztegia
· estruktura metalikoak
· zerrailgintza
· galdaragintza
· ate baskulatzaileak
· ate automatikoak

Aparan Ind, 1
Tfnoa - Faxa:
948 456 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE



Sampi
Aragon
ongi pasa bestak!
Leitzako bidea • Doneztebe
☎948 450 354




ARIN
Mª Pilar Inda Arrieta
Miriam Arnedo Inda

Aseguruak - Seguros:
- Auto eta kamioietan aseguruak
- Etxebizitza aseguruak
- Bizitza aseguruak
- Pentsio planak
- etab...

Parrokia, 21
DONEZTEBE
Tel: 948 450 266
Faxa: 948 450 617
miriarin@yahoo.es



Txupinazoaren ondotik, besta eta dantza Doneztebeko Sanpedrotan



## Ekainak 29 Ortzeguna

### SAN PEDRO EGUNA

**09:00etan:** Diana CORCOR txarangarekin.

**11:00etan:** Meza Nagusia San Pedro apostoluaren omenez, MENDI abesbatzarekin. Banderaren dantza, Trapatan eta bertze tradiziozko dantzak, Doneztebeko dantza eta txistu taldearen eskutik.

**12:30ean:** Erraldoi eta buruhaundien irteera.

**13:30ean:** Hamaiketakoa Herriko Etxeko arkupeetan.

**17:00etan:** Erremonte profesionala:

MARTINEZ II - SAN MIGUEL

LARREA - OLAZAR

UTERGA - ETXEBERRIA II

IRIBARREN - URRUTIA

**20:00etatik 22:30era**

**00:30tik 03:30era:** Dantzaldia **GAUBELA** taldearekin Santa Luzia plazan.










ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI
Merkatariak 8,
Tfonoa: 948 450 081
DONEZTEBE
-LOTERIA PRIMITIVA
-KINIELAK
-PELUKEROA

RUIZ mobleak
- Haritz, gaztain, eta pinu egurrez egindako mobleak
- Dekorazio artikuluak
Merkatarien karrika, 16 · Tfnoa: 948 450110 · DONEZTEBE

ZAPATADENDA
PAPERTEGIA
ESTANKOA
Tel eta Faxa: 948 450 289
e-posta: costiz@teleline.es
Parrokia 17· DONEZTEBE
CASA OSTIZ

JUANTXO SAN MIGUEL
Iturgintza
Iturgintza · Kalefakzioa · Gas instalazioak
948 450 866 · 626 112 415 · DONEZTEBE

MAYLIN OSTATUA
-Bokadiloak
-Pintxoak
-Plater konbinatuak
ongi pasa bestak!
Parrokia 15, DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 66

BIXEN ostatua
Bokadillo eta platero goxoak
948 450 383 · DONEZTEBE

gurutze denda
Tel: 948 450 389
Nagusia, 2 · DONEZTEBE
· Testu liburuak
· Liburuak
· Aldizkariak
· Egunkariak
· Goxokiak

ordua eskatu
GIZON ETA EMAKUMEENDAKO
MAITE ileapaindegia
Solarium-a
Mourges Etorbidea, 4 948 451 780 - DONEZTEBE

DONEZPAN S.L.
okindegia · autozerbitzua
Nagusia, 15 · DONEZTEBE
Tel/Faxa: 948 450 037




Muebles
**Telletxea**

Rosa Seminario 12
Tel: 948 450 258
948 451 811
DONEZTEBE
telletxea@eniac.es




# KONTXA

## Gasolindegia

✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanen dugu

✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

# KONTXA

## kafetegia

✓ Bokadiloak eta Platerak

✓ Ogi egin berria



*Ongi pasa bestak!*

Tel: 948 450 272 · Faxa: 948 450 810 · DONEZTEBE






Urtero bezala, bandera dantza, Trapatan dantza...
izanen dira San Pedro egunean








Mailposta
Leitzako bidea, 9
31740 DONEZTEBE
948 59 23 13
inprimategia + diseinua
bertan egindako lanak!

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

PITTI
ESKABAZIOAK
Tfnoa:
616 513 491

Ongi pasa bestak!
Ameztia, 2
DONEZTEBE

EUSKARA

# Bigarren SMS lehiaketa antolatu du UEMAk




## Mezuak ekainaren 30a baino lehen igorri behar dira

ttipi-ttapa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAk antolatutako Euskal Herriko II. SMS lehiaketa ekainaren 30a arte eginen da.

Betidanik izan da UEMAren helburuetako bat gazteen arloari ere heltzea. Bide horretatik, gazteen hizkuntza ohituretan eta kalitatean urratsak eman nahian hasi ziren iaz, eta Zazpiak Batman kolektiboarekin elkarlanean antolatu zuten Euskal Herriko lehen SMS lehiaketa. Lehiaketa haren emaitzak ikusita, aurten bigarren lehiaketa antolatzera doa UEMA.

Lehiaketaren euskarri nagusia www.smsariketa.org webgunea izanen da aurten ere. Baina iaz "gehien maite duzun horri" idatzi zieten guztiek aurten ezezkoak errateko duten abilezia erakutsi beharko dute. Izan ere, "esaiozu ezetz" izanen da aurten SMSak idazteko gaia.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek webgunean bertan sartu ala 5649 zenbakira SMS bat bidali (uema.sms2.mezua) beharko dute.

Iaz bezalaxe, aurten ere sari ikusgarriak jarri dituzte partehartzaileentzat: eskuko ordenagailua, internet tableta, kamera digitala, Realeko kamisetak, Gaztetxuloko harpidetzak, Urtxintxaren mahai jolasak, kamisetak eta MP3ak.

ASIA FUNTS BERMATUA




Rural Kutxak, bere inbertsio-funts berriaren bidez, Asian inbertitzeko aukera eskaintzen dizu; izan ere etorkizunari begira hazteko itxaropen handiak dituen merkatua baita.
Honako abantaila hauek eskaintzen dizkizu **ASIA FUNTS BERMATUAK:**
- Txina (Hang-Seng), Japonia (Nikkei 225) eta Koreako (Kospi 200) burtsa-indizeen **HILEKO BATEZ BESTEKO ERREBALORIZAZIOAREN %100.**
- 3 kontsolidazio-maila errentagarritasunean: **%10, %20 eta %30.**
- Bermearen epemugan, 3 urte, **hasierako inbertsioaren %100**a gehi lehenago zehaztutako burtsa-indizeen errebalorizazioa jasoko duzu.

www.ruralvia.com

RURAL MULTIFONDO 75, FI, errenta aldakor globaleko funts mistorik onenari emandako bi sari irabazi zituen 2005ean, Standard &Poor's eta Intereconomia-Morningstar Sarietan.

* Inbertsio fondoaren berme-epean %10, %20 edo %30eko errebalorizazioa lortuko balitz, aipatu errebalorizazioa finkatua geldituko litzateke, eta burtsa-indizeek duten bilakaeraren arabera errentagarritasun handiagoa ere lortuko litzateke.
Rural Cesta Asiática Garantizado delako fondoa, FI-a C.N.M.V.an inskribatua dago 3.451 zenbakiarekin.
Eskura duzu argibide foiletoa Rural Kutxako bulegoetan.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

## GOIZUETA

# Xapo aldizkariaren 5. zenbakia kaleratu da

### Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak argitaratua

Esteban AROTZENA

Herriko Kultur Taldea hilzorian baldin badago ere, Xapo aldizkariaren 5. zenbakia argitaratzeko hainbeste indar atera du nonbaitetik, 28 orriko ale txukun eta duina gainera. Horretarako ezinbestekoa izan da Udal Euskara Zerbitzuaren kolaborazioa eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuko dirulaguntza.




Azala eta beste 3 orri azaroko feriari eskaintzen dizkio Xapok, Bai Euskarari kanpainak egun horretan izan zuen presentzia azpimarratuz, Ondoren, «Haiek bai garaiak! edo ez?» atalean, 1995. urteko herriko berririk garrantzitsuenak oroitarazten dira, orduko ttipi-ttapako kronikak eta argazkiak erabiliz horretarako. Hagitz interesgarria da Anttonek eta Susanak kontatzen diguten bidaia ere, 2004an Etiopiara egindakoa hain zuzen. «Ezetz asmatu» ataleko orriak berriz, argazki zahar bezain politez horniturik heldu dira, eta ale honetako elkarrizketa Belgikako Leuven-en ikasten ari den Saioa Tabernari egindakoa da. Txoko Sex-ek, «eta neskak ere masturbatzen al dira?» artikuluak, txisteak, «Hizkuntzaren jabekuntza» erreportaiak eta kontrazaleko «Zure txanda» sekzioak osatzen dute 2006ko Xapo aldizkaria. Argazki askokoa eta irakurterraza, aurrekoak bezalaxe. Ea 2007koak ere argia ikusten duen.

### *Bertsolariak Ixkibin*

Xabier Legarreta eta Unai Agirre bertsolariekin eginen den barrikotearekin emanen dio Ixkibi kanpinak hasiera udako denboraldiari. Ostiralean, hilak 16, izanen da afaria 21:30ean.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Eskola ibiltariak kanpainan Valentzian izandako ikasleen argazkia.**

## Berri ugari eskolatik

ttipi-ttapa

Eskola ibiltariak kanpainan Valentzian izan ziren Andres Narbarte «Xalto» eskolako ikasleak.

Aipatu gainera, Leire Costas, DBHko ikasleak, «Tranqui» lehiaketako narratibako lehenengo saria irabazi duela. Honetaz gain, ikasle beraren marrazki bat Mapfrek eta Nafarroako Gobernuak antolatutako lehiaketa batean saritua izan da. Ikasturteari bukaera emateko berriz, ikasleekin ekimen berezia egin zen, gure herria garbi ikusten ohi gaitezen, kalera ateraz herria pixka bat txukuntzera. Ekimen polita izan zen eta eskolako ikasleak burubelarri aritu ziren horretan.

## ARESO

# Sokatira denboraldiari ekin dio berriz ere herriko taldeak

### Pisu txikietan itxaropenak ditu

Juana Mari SAIZAR

Sokatira taldeak aurtengo denboraldiari hasiera eman dio, hau irakurtzerakoan 680 kiloko jardunaldiak bukatuta egongo dira dagoeneko, pasa den astebuan jokatu baitzuten finala. Aurten hiru mutil berrirekin taldea eratu dute, dagoeneko bi baja dituzte hezur arazoekin eta horietako bat garrantzitsua, nahiz eta lau kategorietako pisuetan parte hartu; 680, 640, 600 eta 560. Pisu txikietan jarrita dauzkate itxaropenak, beraz hemen aritzen den mutila errekuperatzeko zain daude. Pisu txikietako jardunaldiak orain hasi behar dira eta beraiek esan bezala, orain da benetako lehia eta esfortzua egiteko garaia.

### *Olio zikinaren zaborrontziak*

Zabor ontziak bi koloretakoak ezagutzen genituen baina orain naranja koloreko beste berri bat ondoan jarri dute. Etxean erabilitako olio zikina birziklatzeko da. Plastikozko botila hutsean olioa bota eta itxi ondoren beraiek olioa eta ontzia berziklatzen dituzte.



ARTXIBOKOA

**Sokatira taldea lau kategoriatan lehiatzen ari da Euskal Herriko lur gaineko txapelketan**

### *Anartz Olano txapeldun Arronizen*

Anartz Olano Arronizko torneoan txapeldun atera zen eskuz banaka, Garaioren kontrako finalean 18-17 irabazita. Doneztebeko Erreka torneoan berriz azpitxapeldun gertatu zen binaka Ibai Gilekin batera . 18-7 galdu zuten finala eta igande honetan beste final bat jokatuko du aresoarrak.

LEITZA

# 2.630.574 euroko aurrekontua ahobatez onartu du Udalak

Suhiltzaileen egoitza, eskola, hilerria eta mendiak hobetuko dira

ttipi-ttapa

Udalak 2.630.574,13 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, ahobatez onartutako udal aurrekontuaren arabera. Aurrekontu honen xehetasunak emanez, idatzia banatu da etxez etxe. Horren arabera, suhiltzaileen egoitza moldatzeko 104.500 euro bideratuko dira eta Nafarroako Gobernuarekin laguntzarekin ordainduko da. Herriko Etxean igogailua jartzeko 120.000 euro beharko dira eta erditsua dirulaguntzen bidez ordainduko da. Hilerria moldatzeko 131.000 euro beharko dira. Kopuruhorretan, handitzeko beharko diren lurrak erosteko prezioa ere sartua dago. Mendietako garbiketa eta mantenimendurako 34.392 euro inbertituko dira eta Iruñetik 25.321 euro ailegatuko dira lan honetarako. Eskola moldatzen beste 12.000 euro joanen dira, nahiz eta erdia dirulaguntzekin ordainduko den. Azkenik, liburuak erosteko 2.400 euro ordainduko dira.

Aurten egin diren gastuei dagokienez, handiena Patxi Arrazola auzoko lanena izan da, 367.683,44 euro joan baitira. Denera, 839.806,39 euro erabiliko dira aurten inbertsioetan.

Herriko bizilagunek ordaindu behar dituzten tasa ezberdinei buruzko informazio zehatza ere ageri da banatu berri den idatzian.




ARTXIBOKOA

***Iera Agirre eta Saioa Iraola Aurrerako pilotariak Euskal Herriko txapeldun paleta-goman***

**Maiatzaren azken asteburuan Iera Agirre eta Saioa Iraola herriko pilotariek Euskal Herriko Emakumezkoen binakako pala-goma txapelketa irabazi zuten. Euskal Herriko Konfederazioak antolatutako txapelketaren lau finalak Hernanin jokatu ziren eta leitzarrek 30-29 irabazi zioten Lapurdiko Eyherachar-Comets bikoteari. Sei bikote aritu ziren helduen kategorian eta txapela lortzea ezustea izan da leitzarrentzat: *«Arerioak ez genituen ezagutzen, gu baino zaharragoak eta indartsuagoak ziren eta horregatik ezusteko handia izan da txapela guretzat».***

## Plazaola aldizkaria prestatzen hasiak dira

ttipi-ttapa

Aurrera elkartea Santiburtzioak prestatzen ari da eta azalaren lehiaketarako nahiz idatziak aurkezteko epea ireki du.

Azal lehiaketan herrian bizi den edozeinek parte har dezake eta ekainaren 22rako aurkeztu beharko dira lanak. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, nahi duen teknika erabiliz eta 50x65 cm.ko neurria gainditu gabe. «Leitza 2006; Tiburtzio Donearen Pestak; 28. zenbakia» agertu beharko da nahitaez. Partehartzaileak bi kategoriatan banatuko dira, 16 urte artekoak eta 16 urtetik gorakoak. Kategoria bakoitzean botu gehien eskuratzen duten biak saria jasoko dute Santiburtzio egunean.

Aldizkarirako idatziak aurkezteko epea, berriz, ekainaren 24an bukatuko da. Idatziak Aurrerako buzoian utzi behar dira.

Arkb arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Goitzai 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

txokoberri
Aluminioan espezializatuak
• Arozteqi Metalikoa (leihoak, ateak, barandak....)
• Parket
Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 881 924

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucesba @ msn.com

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

BAZTAN

# Lekarozko ikastetxe zaharra Udalak erostea aholkatu dute

## «Iniciativas Innovadoras» enpresak herritarren iritzia bildu du

ttipi-ttapa

Lekarozko Kaputxinoen ikastetxe zaharra Balleko Udalak erostea eta gizarte, hezkuntza nahiz kultur zerbitzua eskaintzeko erabiltzea nahi dute herritarrek. Ondorio hori atera du «Iniciativas Innovadoras» enpresak, Udalaren enkarguz ikerketa egin ondotik. Maiatzaren 29an egin zen txostenaren aurkezpena. Mahaian, Virginia Aleman alkatea, Santiago Aldako zinegotzia eta ikerketa egin duen enpresako Javier Bazterrika eta Isabel Elizalde izan ziren. Aurkezpenera 40 bat baztandar eta Lekarozko ikastetxeko ikasle ohiak agertu ziren. Hauen ustez ere, Udalak *«jarrera ausarta»* hartu eta ikastetxea erosi egin beharko luke. Jakina denez, ikastetxea 2002. urtean behin betikoz itxi eta 14 Hektareako lur eremua salgai jarri zen. Alkateak aipatu zuenez, zenbait inmobiliariak lur eremuari kalifikazioa aldatzea eta eraikigarria izatea eskatu dute, baina udaleko gobernu taldeak ikuspegi ezberdina du, *«daukan kokapenarengatik, gizarte edo kultur arloko ekimen garrantzitsua egiten ahal delako. Bi urteko lanaren ondotik proposamen bideragarria dugu»*.



ARGAZKIA: ONDIKOL

***Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleak Italiara***

**Lekaroz-Elizondoko Bigarren Hezkuntza Institutuko bi ikaslek praktikak eginen dituzte Italiako enpresa batean, Leonardo da Vinci programan parte hartu eta aukeratuak izan ondotik. Olatz Juanena Saez eta Rakel Ordoki Arburua doneztebarrak dira; lehenbizikoak Administrazio Kudeaketa ikasten du eta bigarrenak Admnistrazioa eta Finantzak. Bi ikasle hauekin batera, bi irakasle ere aukeratuak izan dira, Irlandan formakuntza egonaldia egiteko. Argazkian, Olatz eta Rakel ageri dira, Joxean Subizar tutorearekin eta Joxe Urroz, Lanbide Eskolako zuzendariarekin.**



PERTSONAIA

Svetlana BOGDANOVA

## Munduko atezainik onena izandakoa BKT eskubaloi taldean

Svetlana Bogdanova atezain errusiarra arituko da heldu den denboraldian Magna-BKT eskubaloi taldean. Egia da 42 urte eginen dituela uztailean, baina esperientzia handia ekarriko du Baztango taldera. Errusiako selekzioarekin 360 aldiz aritua da, bitan Munduko txapeldun izana eta hirugarrena Joku Olinpikoetan. 1996ko txapeldunen liga eta SuperKopa eta 2001eko ABF Kopa ere irabaziak ditu. Bere palmaresa osatzeko, Espainiako liga seitan eta Erreginaren kopa zortzi aldiz irabazia da. Errusiako Federazioak, XX. mendeko atezainik onenaren saria ere eman zion.












BAZTAN

# Almandozko Besta Berri bestak ekainaren 14tik 18ra eginen dira

Egun handian haurrak pilotan eta neskak palan arituko dira



UTZITAKO ARGAZKIA
1997ko argazkia, Almandoz eta Belateko tunelak bedeinkatu zirenean. Hainbat herritar joan ziren ekitaldian parte hartzera eta, bidenabarkoan, herriari hain aldaketa handia ekarri zion lanak ikustera.

### Asteazkena 14
**BEZPERA**

**13:00etan:** Txupinazoa bestei hasiera emateko eta ezkil jotzea.
**22:00etan:** Baztan-zopak Leku-Ederren.

### Ortzeguna 15
**BESTA BERRI EGUNE**

**8:00etan:** Aurora herriko karriketan barna.
**12:00etan:** Meza Nagusia eta ondotik herriko pilota lekuan aperitiboa izanen da.
**16:30ean:** Herriko haurren pilota partidak eta nesken arteko pala partidak izanen dira.
**22:00etan:** Kalderete afaria herriko pilotalekuan.
**0:00etan:** Gaupasa.

### Ortzileria 16

**10:00etan:** Haurren jokoak eta ondotik MARZEL magoa.
**16:30ean:** Mus txapelketa.
**17:30ean:** Haurren eta animatzen diren guziendako txokolatada Leku-Ederren.
**22:00etan:** Afaria Leku-Ederren.
**0:00etan:** Dantzaldia SALABERRIrekin.

### Larunbata 17

**11:00etan:** Mus txapelketaren finala.
**14:00etan:** Zikiro jatea.
**17:30ean:** Dantzaldia GORKArekin.
**0:00etan:** Gaupasa JALISKO BAND eta TXUTXIN IBAÑEZekin.

### Igandea 18

**11:00etan:** RECREO Musika-bandaren emanaldia.
**12:00etan:** Meza Nagusia.
**16:00etan:** Haurrendako Puzgarriak.
**17:00etan:** Urdaiazpikoaren zozketa eginen da.
**20:00etan:** Gaixua Ni

## Junta Generalaren batzarrak hiruhileko lehen lan egunean

ttipi-ttapa

Aspaldiko ohitura segituz, egun jakinetan egin izan dira Junta Generalaren ohiko batzarrak: Bazko bigarren egunean, Mendekoste bigarren egunean, San Migel egunean eta Eguberrietako bigarren egunean. Hain zuzen Mendekosteko batzarrean ohitura hori aldatzea erabaki zen, aldeko 16 boturekin, kontrako 2 boturekin eta 9 abstentziorekin. Hemendik aitzinera, hiruhileko bakoitzeko lehen lan egunean eginen dira urteko lau batzarrak. Alkateak egin zuen proposamena, batzarrak urtean hobeki banatzeko eta lan egunetan izanik, funtzionarioen partehartzea errazteko. Halere, batzuen ustez, ordenantza guziak zaharberritu beharko lirateke.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ - MUGAIRI

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Zugarramurdiko lezeetako argiteria berritzeko 120.000 euro ordaindu dira

Sorginkeriaren Museorako gidariak prestatzeko 32 orduko ikastaroa eginen da



ARTXIBOKOA
**Sorginkeriaren Museoa heldu den urtean irekiko da eta gidari lanak egiteko formakuntza ikastaroa antolatu du Zugarramurdiko Udalak.**

Margari eta Koro

Hilabete terdiz egon dire langileak Zugarramurdiko lezeetako argiteria berritzen. Orain arte emanak ziren fokoak exkaxkoak zirela-eta oraingoak berriz txoko eta zilo pullitenak erakusten omen dituzte.

Lan hauek 120.000 euro balio izan dute (20 milioi pezeta), eta diru hortatik 96.000 Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu, eta gainetakoak herriak.

### Gaupasarik ez aurten

Gaurgero gainean dugu azkeneko 23 urtetan ospatu izan den lezeko gau-pasako eguna, eta nahiz eta aurten ez den antolatuko, hala ere jende ainitz ez ote den etorriko beldurra da.

Ez antolatzea erabaki zenean, horren berri igorri zen hedabideetara ahal bezain bat zabaltzeko, eta momentu honetan ere, eguna hurbiltzen ari denean, berriz gauza bera igorri da, bainan hala ere, eta jakinki izigarri toki hurrunetatik etortzen zela jendea, posible da aunitzek ez jakitea eta egun horretan herrian agertzea.

Bederen, Ttipi-Ttapako eremuan bizi zaretenok, oroitu lezeak etsiak egonen direla, eta ez dela deus bestarik antolatu. Ez etorri alferrikan.

### Apez aldaketa

Bi herriak atenditzen dituzten bi apezetatik, batek uda ondotik utziko digu. Artzapezpikutzatik aldaketa batzuk egin dituzte, eta horren ondorioz Ander Gilleneak orain arte zaintzen dituen herriak (Urdazubi, Zugarramurdi, Amaiur, Erratzu eta Arizkun) utziko ditu eta Lesakara joanen da.

### Museorako gidariak

Heldu den urtean Sorginkeriaren Museoa irekiko denez, gidariak prestatzeko formakuntza ikastaroa antolatu du Zugarramurdiko Udalak. Gehienez 15 lagun arituko dira. Ikastaroak 32 orduko iraupena izanen du: zortzi egunez, 16:00etatik 20:00etara ekainaren hondarretik uztailaren hasierara.

Izena emateko epea ekainaren 22 arte da, eta Herriko Etxera joan behar da 50 euro ordaindu ondotik.


ETXE PAREKATUAK SALGAI

Ikastola eta eskolaren artean, Elizondon bertan. Merkatuzelai parajean. 2 Solairu, garajea, lorategia...

eraikitzen ari dira



BALLARENA ERAIKUNTZAK
Santiago kalea, 60-B - ELIZONDO
Telefonoa: 948 45 23 95

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tlfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

HERRIKO ETXEKO ODENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T. 0559542519
Maixan eta Véronique
SARA

Maderas GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

## SARA




ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

**Axuria elkartea Euskal Mendizale Federakuntzan sartu da eta Hego Euskal Herriko mendizale kopuruak gorakada handia izan du aurten, 300 hurbildu baitira Sarako bazterrak ezagutzera.**

# Sarako XI. Mendi Itzulian 800 mendizalek parte hartu dute

Bertzalde, Larrun ttiki haurtzaindegiak biltzarra eginen du ekainaren 23an

Laetitia eta Sandrine

Axuria elkarteak bi urtetik antolatzen duen itzulia denbora ederrarekin iragan da, aurten hamekagarren aldiz. Denetara 800 medizalek parte hartu zuten. Axuria Euskal Mendizale Federakuntzan sartuz, Hego Euskal Herriko jende kopuruak gorakada handia egin du, aurten 300 bat lagun hurbildu ziren. Egun horren ondotik mendizaleak hurbildu ziren polikiroldegian Axuriak prestatutako afarira.

### *Haurtzaindegia*

Larrun ttiki haurtzaindegiak bere biltzar nagusia antolatzen du ekainaren 23an, ortziralarekin, gazteen etxean arratseko 20:30ean. Aurten Larrun ttiki-k uztailaren 10ean bere ateak idekiko ditu abuztuaren 23a arte. Elkarteak jakinarazten du izen emaiteak bukatuak direla. Ateraldi desberdinak antolatuak dira, Miarritzen Marion lakura, Landesetan Poyalleko errotara edo berriz Hendaiara Abadia gaztelura, bai eta mendi martxak eta beste gauza ainitz.

### *Haur ainitzen amak sarituak*

Ekainaren 2an arratsalde bukaeran Herriko Etxeak gonbidatu eta saritu ditu haur ainitz izan dituzten amak, horietan Michelena Lucienne, Michelena Catherine, Beola Elisa, Ichuribehere Virgilia eta Etchegaray Ana.

### *Ikastolako besta*

Ekainaren 17an eginen da Olhain ikastolako besta.Arratsaldean joko puzgarriak izango dira haurrentzat plazan segitzeko Speitz Mukaki taldeak ikusgarri bat emanen du, eta arratsean pintxoak eta zintzur bustitzea egiteko aukera izanen da.

## FLASH

### *Arropa bilketa*

Frantziako elbarrituen elkarteak urtero bezala arropa bilketa antolatu zuen, ekainaren 9an goizarekin herriko plazan.

### *Beti Gazte*

Beti gazte elkarteak krakada antolatzen du ekainaren 29 ostegunarekin Mayi-n etxean.

### *Sarako Izarra errugbia*

Ekainaren 24an larunbatarekin, errugbi elkarteak bere besta antolatzen du errugbi zelaian. Arratsaldeko 3etan errugbi partidak hasiko dira (Frantzia Inglaterraren aurka) eta segitzeko saratarrak arituko dira. Zintzur bustitzea alaitua izanen da Sarako kantariekin eta segitzeko afaria antolatua izango da.

### *Sarako Gaztetxea*

Ekainaren 16an ostiralarekin gaztetxeak antolatzen du zintzur bustitze bat gaupasetan lagundu duten jendeentzat, beren lana eskertzeko. Bertzalde ekainaren 21ean, Musika egunaren kari elkarteak antolatzen du animazio ttiki bat pintxoak izango dira eta aperitifa egiteko aukera ere.Gauez DJ Makalak joko du gaztetxean.







SENPERE

# Bainua, ur kirolak eta arrantza baimenduak dira berriz ere aintziran

## Erroten eguna, Besta berri eta Musikaren Eguna ospatuko dira



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Senpertar gazteek jaun hartzeak egin dituzte berriki. Besta berriren ondotik, kermeza izanen da. Eliza laguntzeko parada izanen da egun osoan.**

Franck DOLOSOR

Herriko aintziran gertatu zen kutsadurarengatik bainua, ur kirolak eta arrantza debekatu zituen Herriko Etxeak gan den maiatzaren 16an. Dena den, geroztik egin diren ikerketek frogatu dute kutsadura ez zela kimikoa. Ikerketak aintzirako hiru toki estrategikotan egin dituzte, kanpingkarren aparkalekuaren ondoan, hau da erreka aintzirarat isurtzen den tokian, bainua zaindua den gunean, eta aintzirako ateratzean. Herri Urratsen baliatzen diren komun mugikorretan likido organikoa dago aintzineko TTIPI-TTAPAn esplikatzen zen bezala.

Ur zikinak bildu ondoren eta irriskurik ez baita jendeentzat, Herriko Etxeak eta prefeturak deliberatu dute lakuan mainatu eta arrantza egin daitezkela berriz ere.

### Erroten Eguna

Bederatzigarren aldikotz, erroten eguna eginen da igandean. Ate irekitze egun hunen xedea aspaldiko ofizioak eta tresnak ezagutzea da. Eliza ondoan dagoen errotak ateak irekiko ditu goizeko 9ak eta arratsaldeko 6ak artean. Bisitak euskaraz eta frantsesez eginen dituzte.

### Bestaberri eta Musikaren Besta

Bestaberrik eta musikaren bestak herriko karrikak alegeratuko dituzte ondoko egunetan. Bestaberri igandean eginen da desfilearekin, dantzariekin, eta musikariekin. Musikaren besta aldiz erearoaren 20an, asteartearekin eginen da arratsaldeko 8etatik goiti. Musikari guziak gonbidatu dituzte elkarrekin musika jotzeko eta momentu goxo baten pasatzeko.

### Eskubaloiaren biltzarra

SPUC kirol batasuneko eskubaloi sailaren biltzar nagusia erearoaren 17an izanen da Gantxikin. Arduradunek espero dute laguntzaile berriak agertuko direla entrenatzaileak eskas direlakotz. Horrek trabak ekartzen ditu emaitza hobeak ardiesteko eta beraz sailaz upatzeko.



**Joseba**
**ETXEBERRIA AGERREBERE**
**I. URTEURRENA**

*Nahiz eta gure artetik*
*Duela urte bat*
*Urrutira joan*
*Beti izanen zaitugu*
*gure bihotzean.*

**ZURE GURASO, ARREBA ETA GAINERAKO FAMILIA.**

Arraiozen, 2006ko ekaina.



**Luis Mari MAIA ARIZTEGI**
**5. URTEURRENA**

*Nahiz eta gure artetikan*
*urrutira joan*
*beti izanen zaitugu*
*gure bihotzean.*

**EMAZTEA ETA SEME-ALABAK**

Etxalarren, 2006ko ekainaren 10ean



**Jose Angel**
**TOMASENA ELIZALDE**
**2006ko maiatzaren 18an hil zen Etxalarren, 83 urte zituela.**

*Gogorra da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizi garen artean*
*ez zaitugu ahaztuko.*

**ZURE FAMILIA.**



# EZKONTZAK

**Joseba Loiarte Barberena** eta **Naiara Oskoz Fernandez**, Lantz eta Atarrabiakoa Iruritan, maiatzaren 20an.
**Roberto Miguel Perez** eta **Beatriz Ruiz Pinillos**, Iruñekoak Arizkunen, maiatzaren 27an.
**Juan Martin Etxeberria Karrikaburu** eta **Rosa Maria Dagerre Iturbide**, Arizkun eta Erratzukoa, ekainaren 1ean.
**Igor Rebollo Loinaz** eta **Ainhoa Zubillaga Lazkano**, Leitzakoak, maiatzaren 26an.



# SORTZEAK

**Jokin Elizalde Abad**, Illarregikoa, maiatzaren 18an.
**Izaro Otegi Bakero**, Asteasukoa, maiatzaren 19an.
**Oihan Zapata Cebrian**, Arizkungoa, maiatzaren 22an.
**Elixabet Bailon Urtasun**, Iruritakoa, maiatzaren 23an.
**Amaia Ballarena Telletxea**, Elizondokoa, maiatzaren 31n.
**Elayne Valverde Felix**, Berakoa, maiatzaren 18an.
**Naroa Telletxea Iriarte**, Berakoa, maiatzaren 17an.
**Maddi Altzugarai Garro**, Berakoa, maiatzaren 22an.
**Janire Otxandorena Mitxelena**, Lesakakoa, maiatzaren 20an.
**Leire Gonçalves Zestau**, Leitzakoa, ekainaren 2an.
**Uxue Gonçalves Zestau**, Leitzakoa, ekainaren 2an.
**Fatima Soraia Gomes da Silva**, Sarakoa, maiatzaren 22an.
**Peio Lamothe**, Sarakoa, maiatzaren 31n.
**Louka Milo**, Sarakoa, maiatzaren 31n.
**Andoni La Torre Osua**, Etxalarkoa, apirilaren 8an.
**Ekiñe Arotzena Arrosamena**, Etxalarkoa, maiatzaren 2an.



# HERIOTZAK

**Braulia Zozaia Urteaga**, Elizondon, maiatzaren 29an, 94 urte.
**Maria del Villar Osakar Agerrebere**, Zigakoa, maiatzaren 29an, 85 urte.
**Maria Concepcion Bengotxea Gamietea**, Arizkungoa, maiatzaren 31n, 99 urte.
**Agustin Santxotena Hualde**, Erratzukoa, maiatzaren 24an, 79 urte.
**Martin Mutuberria Erasun**, Saldiaskoa, maiatzaren 25ean, 97 urte.
**Maria Dolores Breton Lopez**, Berakoa, maiatzaren 28an, 94 urte.
**Leandro Sagaseta Sagaseta**, Donamariakoa, ekainaren 1ean, 70 urte.
**Fernanda Arburua Mendiburu**, Elizondokoa, ekainaren 1ean, 62 urte.
**Aritz Plaza Arnal**, Elizondokoa, ekainaren 2an, 21 urte.
**Jean Bernez-Vignolles**, Sarakoa, maiatzaren 27an, 81 urte.
**Clemence Ayez**, maiatzaren 26an, 94 urte.

---



**Jaione**

**MUTUBERRIA MENDIKOA**

**(1987-XII-19/2006-V-06)**

*Poza nabari zen*
*hemen zinenean*
*ta ze pena daukagu*
*joan zarenean,*
*bizitzan bezalatsu*
*ere heriotzean*
*edukiko zaitugu*
*denok bihotzean.*

*Pena handi bat dugu*
*gure bihotzean*
*zu gurekin izana*
*hain epe motzean,*
*irriz bizi baitzinen*
*ta irriz hiltzean*
*irriz biziko gara*
*zure bihotzean.*

**NARBARTEKO GAZTEAK**



**Jaione**

**MUTUBERRIA MENDIKOA**

**Istripuz hil zen, 2006ko maiatzaren 6an, 18 urterekin**

GOIAN BEGO

*Jaione, elkarrekin hazi ginen, beti haserre eta bake baina elkarrekin. Bapatean joan zara eta zu gabe geratu garela pentsatzean barnean izugarrizko korapiloa jarri eta bizitzen jarraitzeko gogoa joaten zait. Alaia, besta zalea, langilea… dena genuen eta deus gabe geratu gara. Agur ez dizut esan behar, nere bihotzean egongo baitzara beti. Noizbait berriro elkartuko gara eta orduan betirako izango da. Muxu bat eta gero arte Jaione ahizpa bikaina, zure hutsunea betiko geratu zaigu.*

**ZURE FAMILIA**



**Jaione**

**MUTUBERRIA MENDIKOA**

**(1987-XII-19/2006-V-06)**

*Aitatxi amatxi lehengusu*
*lehengusin izeba osaba*
*zure faltarekin barrutik*
*arrontin minduak gara*
*korapilo batin bildua*
*sentsazio bortitz ilara*
*nahiz etzauden gure ondoan*
*ezta hertatik hertara*
*gure samina nonahitik*
*entzuten ari bazara*
*gure bihotzen barruan*
*betiko egonen zara!*

**MUTUBERRIA FAMILIAREN PARTETIK**



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Asier APEZETXEA**

***Euskadiko txapeldun Mendi Bizikletan***

# «Espainiako txapelketan lehen hamarren artean sartzea handia izanen litzateke»

- **Asier Apezetxea Iparragirre txirrindulari aranztarrak Euskadiko Mendi Bizikleta txapelketa irabazi zuen maiatzaren 28an Errenterian.**
- **Igande honetan, ekainaren 18an, Bilbon jokatuko den Espainiako txapelketan parte hartuko du.**
- **Lanarengatik 5-6 urtez mendi bizikleta konpetizioa utzi ondotik, duela urte pare bat hasi zen berriz. Gaur egun Lesakako lantegian txandaka lanean ari da eta horrela nekez prestatzen ahal ditu probak, baina nabarmena da Apezetxeak egin duen hobekuntza.**

**Aitor AROTZENA**

Asier Apezetxea, 26 urteko txirrindulari aranztarrak ezusteko ederra eman zuen maiatzaren 28an Errenterian jokatu zen Euskadiko Mendi Bizikleta txapelketan eta garaipen gogoangarria eskuratu zuen. Conor Saltoki taldearekin ari den Apezetxea esprintean nagusitu zitzaion Bikezonako Patxi Zia nafarrari eta honenbertzez, Euskadiko txapeldun berria da. Urko Munduatek osatu zuen podiuma. *«Unai Yus zen faborito nagusia, bera profesionala da eta hor zegok koxka, gainerakoak lanean aritzen gara eta. Gauzak normal joanda ez nuen irabaztea espero, baina gero poza doblea izan zen»*.

Euskadiko Openerako puntuagarria zenez, sailkapen horretan lehenbizikoa den Patxi Ziarekin duen aldea murriztu du Apezetxeak, aranztarra bigarren baita: *«Hiruzpalau proba falta dira eta 12 puntu gibeletik naiz. Ahal den gehiena estutzen saiatuko naiz, baina zail dago»*. Baina

**«Jautsieretan ongi moldatzea izaten zen nere ezaugarri nagusia, baina orain osoagoa naiz: lohiarekin dexente moldatzen naiz eta maldan goiti ere aunitz hobetu dut»**

Vasco-Navarro zirkuitoan ere lehian ari da eta hor sailkapen buruan dago. *«Oraindik 9-10 proba falta dira, baina abantaila kozkorra daukat»*.

### ESPAINIAKO TXAPELKETA IGANDEAN BILBON

Bi lehiaketa horiek baztertu gabe, igande honetan, ekainak 18, Bilbon jokatuko den Espainiako txapelketarako prestatzen ari da orain Apezetxea. *«Nere ilusioa hamar lehenbizikoetan sartzea da. Iaz hamaseigarren izan nintzela kontuan hartuz, helburu handia da, baina horretan saiatu behar dut, talde handiek nigan begia jartzea nahi badut, hori da gure eskaparatea»*. Izan ere, pare bat urtez bederen, profesionalki mendi bizikletan aritzea da aranztarraren ilusioa: *«Egunero entrenatzeko motibazio bat behar da eta momentu honetan hori da nerea, baina mendi bizikletan ez dago erraz»*. Horretarako sponsorra beharrezkoa da, materialaz gain, *«bizi ahal izateko fitxa bat ordaintzeko prest egonen litzatekeena»*. Aurten, Berako Katea-Bike taldetik Conor Saltokira pasatu da, profesionaltasun horretara hurbiltzeko asmoz: *«Katea-Bikek oraindik ere pila bat laguntzen dit eta beti eskertua egonen naiz, baina Conor Saltoki Euskal Herriko talderik hoberena da, bizikleta bikainak ematen dizkigute, arropa, bidaietako gastuak… Ez gaituk profesionalak baina hurbiltzen gaituk»*. Aurten Federazioak Tafallako Javi Moso prestatzailea ere ordaintzen dio. *«Horrek ere laguntzen du, noski. Iaz findu eta oinarria hartu nuen eta horren gainean lan egin dugu»*.

ERRUGBIA

# Euskarians-en zazpinakako txapelketa ekainaren 24an jokatuko da Elizondon

Giltxaurdin zazpi herrialdeetako selekzioak arituko dira

A.A.

Euskal Herri osoko errugbi talde eta elkarte ezberdinak biltzen dituen Euskarians ekimenak antolatutako zazpinakako errugbi txapelketa Baztanen jokatuko da aurten, Elizondoko Giltxaurdi zelaian, ekainaren 24an.

Txapelketa hau Euskal Herriko herrialde batean antolatzen da urtero eta urte bakoitzean bere antolakuntza herrialde horretako Federazioari dagokio. Aurten, txapelketa honen antolakuntza Nafarroako Federazioaren esku dago eta federazioak Baztan Kirok Elkarteko errugbi sekzioari laguntza eskatu dio ekitaldia Giltxaurdin jokatu ahal izateko. Txapelketa ligaxka moduan jokatuko litzateke San Juan egunean eta zazpi taldeak, Nafarroa, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoa, alegia, denak denen aurka arituko dira ordu erdiko partidetan.

Talde bakoitzean, hamabi jokalarirekin batera, entrenatzailea, delegatua eta fisioterapeuta izanen dira. Honetaz gain, txapelketa antolatzeko hamar pertsona behar dirala kontuan hartu behar da.

Baztan Rugbi taldeko Mariano Iribarrenek aipatu digunez, *«ikus daiteke antolatzea eskaini zaigun ekitaldia maila handikoa dela eta gure ustez ederra izan daiteke edozein ikusle-rendako, nahiz eta errugbiari buruz gutti jakin»*.


Utzitako Argazkia
**Euskal Herriko herrialdeetako errugbi jokalariak ikusteko aukera izanen da Giltxaurdin.**

Antolaketa gastuak 6.000 eurotik goitikoak izanen dira eta horregatik, dirulaguntza eskatu dute inguruko enpresa, komunikabide eta erakundeetan. Horretaz gain, ostatua ere paratuko da txapelketa egunean, ikusleek egin dezaketen erosketetatik diru pixko bat biltzeko.

SOKATIRA

# Nafarroako 4x4 txapelketatik ez da txapelik etorri

Beti Gazteko mutilak bigarren izan dira

A.A.

Aurten, lehen aldiz Nafarroan, goma gaineko 4x4 sokatira txapelketa jokatu da. Eskualdeko ordezkaritza zabala izan bada ere, ez da txapelik ailegatu gurera. Mutilen artean, Lesakako Beti Gazte zen txapela janzteko faborito, baina finalean bigarren izan zen, Berriozarren gibeletik. Amaiurko EHNE Nafarroa taldea laugarren izan zen. Finaletik kanpo eskualdeko bertze hiru talde gelditu ziren: CAN Amaiur, Amaiur eta Gure Txokoa zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren sailkatu ziren. Amaiurtik hiru


Argazkia: LEGARRA
**Nafarroako 4x4 sokatira txapelketan, Bortzirietako ordezkari izan dira Gure Txokoako neska-mutilak eta Beti Gazteko mutilak.**

talde ateratzea aipatzekoa da.

Emakumezkoei dagokienez, bi jardunaldi jokatu dira. Sakana izan da txapeldun, Beriain bigarren eta Gure Txokoa hirugarren, baina Berako neskek Beriainen kontrako tiraldi bat irabaztea lortu zuten Burlatako azken saioan.

# AGENDA egunez egun

**MENDI ATERALDIAK**

**BAZTAN**

**Ekainaren 18an** Herriz herri ibilaldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

**LESAKA**

**Ekainaren 25ean** Lesakako VIII. Mendi Itzulia antolatu du Beti Gaztek. Xehetasunak 10. orrian.

**SUNBILLA**

**Ekainaren 25ean** Sunbilla-Artola-Zutarta-Ekaitza-Bustitz-Añesti ibilaldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

**ERAKUSKETAK**

**BERA**

**Ekainaren 15etik uztailaren 2ra** Equipo Saisaren grabatuen erakusketa Kultur Etxean asteartetik igandera (igande arratsaldeak itxia).

**ELIZONDO**

**Ekainaren 9tik 29ra** Kepa Arizmendiren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

**LESAKA**

**Ekainaren 19tik 30era** San Ferminetako kartel eta programaren erakusketa Pleno Aretoan 18:00etatik 20:00etara.

**ZINEMA**

**ELIZONDO**

**Ekainaren 22an** «El nuevo mundo» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloaren barrenean.
**Ekainaren 27an** «Aupa Etxebeste» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloaren barrenean.
**Ekainaren 28an** «Shin Chan: Erreskate Operazioa» filmea eskainiko da Udako Zinea zikloaren barrenean.
**Ekainaren 29an** «Iratxoen erregea» filmea eskainiko da Udako Zinea zikloan.
Emanaldi guziak 22:30etan Merkatuko Plazan.

## TELEBISTAKO TXOKOA





HERRIZ HERRI, BESTAZ BESTA

# Besta giroan murgilduko da ttipi-ttapa telebista

Doneztebeko San Pedro bestekin buru belarri sartuko da Ttipi-ttapa Telebista udako «Herriz herri, bestaz besta» saioan. Telebistako kamera eta Maite Bidarte aurkezlearentzat ere horixe izanen da udako abiapuntua. Doneztebeko bestek ematen dutenaren berri ikusten ahalko da arratseko saioetan. Horretarako aukera ez dutenek, biharamonean ere izanen da errepikapena ikusteko aukerarik, ordu ezberdinetan. Bestetako irudi frexkagarrienak, elkarrizketa xaltxeroenak eta besta guzietan urtero-urtero izan ohi diren xelebrekeriak ikusteko modua izanen da. Urtero bezala, Sanpedro bestetako bideoa edo DVDa eskatzeko aukera ere izanen da ttipi-ttapa telebistan, 948 635458 telefonoan.

**II. Ekobera eta VIII. Lesakako Mendi Itzulia**

Bertze aldetik, ekainaren azken aste hondarrean izanen diren bi hitzordu handiren berri emanen da telebistan. Ekainaren 24an, Ekobera azokaren bigarren edizioa eginen da eta biharamonean, ekainaren 25ean, Lesakako VIII. Mendi Itzulia antolatu du Beti Gaztek. Feria eta mendi itzuli guzietan bezala, jarraipen zabala izanen dute bi ekitaldi hauek Ttipi-ttapa Telebistan.

## DISKAK




*Ezinean*

**EZINEAN**

*GOR, 2006*

Ezinean taldea, 2001. urte inguruan sortu zen Azpeitian, hardcore melodikoaren laguntzaz ongi pasatzeko asmotan. Gaur egun taldeko paraideak Oihan (bateria), Oier (gitarra), Oihan (gitarra eta koroak) eta Iban (bajua eta ahotsa) badira ere, hasiera batean Oihan «bateria», Oier eta Iban hasi ziren. 3-4 bat urtez jardun zuten hirukote moduan ensaiatu eta kontzertuak ematen, 2005. urteko hasieran euren lehen maketa grabatu zuten arte. Maketa, lagun artean grabatu zuten, zerbait erakusgai izateko helburu hutsarekin. Bertan, produktore lanak Oihan «gitarristak» egin zituen. Bistan denez, taldea gustatu zitzaion, eta gitarra jotzen hasi zen. Maketa ez zen kaleratu: aditu bezain abudo, Gor disketxeak diskoa grabatzeko proposamena egin baitzien eta 2006ko martxoan grabatu zuten.

## BASERRIA

Datu Iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Maiatzaren 26tik ekainaren 2ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**



**BEHIKIA**



**Zerrikumea**
(19 kilo): 33,00 € (-4,00)

**Zerri gizena**
1,230 € kiloa. (+0,065)

**Zerramak:**
0,460 € Kg/bizirik. (+0,010)

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,77 (-0,03)
**1.koa** 3,52 (-0,06)
**2.koa** 3,32 (-0,06)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,89 (-0,03)
**1.koa** 3,64 (-0,06)
**2.koa** 3,41 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 220,00 (=)
idixkoak 288,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 225,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,70 /6,60
8-10 kilokoak: 4,60 /5,30

## JAKIN BEHARREKOAK

# Sakeleko telefonoen SMS zerbitzuen garbitasun eza salatu du Irachek



**Opariak edo sariak eskaintzen dituzten mezu gehienetan ez da mezua bidaltzen duen enpresaren nortasuna agertzen. Beraz, ez fidatu!**

Sakeleko telefonoaren bidez egindako hitzorduak, tonuen deskargak, albisteen abisuak... gero eta zerbitzu gehiago eskaintzen dira SMS bitartez. Kontsumitzaile aunitzek erabiltzen dituzte zerbitzu hauek, baina sarri ez dute garbi zerbitzuaren kostua zein den, baja emateko zer egin behar den edo zerbitzua eskaintzen duen enpresa zein den.

Adibidez, Irachen, tonuaren edo kantu baten, joku-zerbitzuen edo futbol partiden emaitzen deskarga eskatu, baina, aldi berean SMS bidalketa periodikoaren zerbitzu batean alta emana zutela ez zekiten kontsumitzaileak hartu dituzte. Lehendabiziko informazio eskaeraren ondotik, sarritan gisa guzietako informazioak dituzten mezuen bidalketa errepikatzen da, kontsumitzaileari fakturatuko zaizkionak hurrengo telefono fakturan. Batzuetan, hilabeteko 25 eurotik 175 euro baino gehiagora pasatzen da faktura.

Bertze batzuetan, zita edo kontaktu zerbitzuek kontsumitzaile batzuei sortzen ahal dien itxaropenak eragiten du arazoa. 1.000 euro baino gehiagoko fakturak dituztenak agertu dira Irachen arrazoi honengatik.

Azkenik, ohikoak dira eskatu gabeko mezuak sakelekoan hartzen dituztenen kexak ere, mezuari erantzunez gero edo normalki 807rekin hasten den bertze zenbaki batera deituz gero, opariak edo sariak eskaintzen dituztena.

Irachek, mota honetako zerbitzuen erabiltzaileei aholku hauek ematen dizkie:

1. SMS bidezko zerbitzua eskatzerakoan, tonu, joku, logo edo albiste-abisu deskarga dela, kostearen, mezu kopuruaren, enpresaren nortasunaren eta zerbitzu horretan baja eskatzeko prozeduraren jakitun zarela ziurtatu.
2. Opariak edo sariak eskaintzen dizkizuten mezuetaz ez fidatu. Gehienetan mezua bidaltzen duen enpresaren nortasuna ez da ageri.
3. Mugikorren fakturak hartzerakoan, fakturatutako mezuak aztertu, akatsik baden ikusteko.

## LIBURUAK



*Hartz arrea Pirinioetan*

**Migel Mari ELOSEGI**

*ELKAR, 2006*

Migel Mari Elosegi biologo eta basozain leitzarrak monografia bat eskaini dio Pirinioetako hartz arreari, hiru arlo hartuz kontuan: biologia, kultura eta kontserbazioa. Batetik, animalia honen ohiturak, janaria, bizilekua, hibernazioa eta abar aztertzen ditu; bestetik, Euskal Herrian hartzak sortu izan dituen mitoak, leiendak, beldurrak eta beste; eta azkenik, ia galdurik zegoen hartz-populazioa ugaltzeko egindako saioak, horrek sortu dituen arazoak (abeltzainekin adibidez) eta aurrera begira har litezkeen bideak ikertu ditu. Liburua landua eta aldi berean atsegina da, koloretako ehunen bat argazkiz eta hainbat mapa eta eskemaz hornitua.

Migel Mari Elosegi leitzarrak 2000. urtean, «Piztizaleon urtekaria» liburuxka argitaratu zuen Elhuyarrekin eta 2005ean, «Hartzak Pirinioetan XXI. mendean», Pamiela argitaletxearekin (Juan Zelaia Saria irabazi ondotik).

## AGENDA egunez egun

### BESTAK

**ALMANDOZ**

**Ekainaren 14tik 18ra** Bestaberri bestak. Xehetasunak 23. orrian.

**ARIZKUN**

**Ekainaren 22tik 25era.** San Juan bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra** San Pedro bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**ERRATZU**

**Ekainaren 28tik uztailaren 1era** San Pedro bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**SALDIAS**

**Ekainaren 23tik 26ra** San Juan bestak. Xehetasunak 16. orrian.

### FERIAK

**BERA**

**Ekainaren 24an** Ekobera azoka, 10:00etatik 14:00etara. Produktu ekologikoen erakusketa eta salmenta, Berako Musika Eskolaren kalejira, erakustaldiak eta bukaeran zozketa. Berako Kultur Batzordeak antolatua.

### KONTZERTUAK

**LESAKA**

**Ekainaren 21ean** ikasturte bukaerako musika kontzertua Alhondigan, 18:30etan. Musika Eskolak antolatua.

**SARA**

**Ekainaren 21ean** DJ Makala Gaztetxean 22:00etan.

### DANTZAK

**LESAKA**

**Ekainaren 24an** Embrujo Andaluz dantza taldea eta *Coro Rociero* Onin erreka inguruan, 22:30etan. Antolatzailea: Beti Gazte.

## Lan bila zabiltza?

**LAN ESKAINTZA**

IKASTETXE PUBLIKOAK
- Garbitzaileak
- Sukalde laguntzaileak
- Sukaldariak
- Atezainak

UDALETXETAN LANPOSTU HUTSAK
- Admin. laguntzaileak
- Harreragileak
- Telefonistak
- Informatika

**LAN ESKAINTZA**

OSPITALAK behar dute
- Zelariak
- Erizain laguntzaileak
- Laborategia
- Fisioterapeutak

UDALETXETAN INKORPORAZIO BERRIAK
- Lorezainak
- Elektrizistak
- Iturginak
- Langileak
- Gidariak
- Peoiak

Presta zaitez. Informazioa dohain.
**948 199 596**


BERAko UDALA

**UDAL BATZARRAREN AKORDIOA**

Udal Batzarrak, 2006ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Berako udal 0-3 urtetako Haur Eskola kudeatzeko zerbitzua kontratatzea onetsi zuen.

Espedientea 27 egun naturaleko epean jarriko da jendaurrean, iragarkia N.A.O.n argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Bera, 2006.05.23

ALKATEA
Helena
Santesteban Guelbenzu


GANIX TAILERRA
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA · FIAT zerbitzua
Iturlandeta, 9 · Tel: 948 630 669

TAILERRA BOAN
Autoen salmenta eta konponketa
Tel: 948 630 023
BERA

TALLERES SANTESTEBAN
© 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR
ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

MENDAUR MOTOR
© 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:


**Zurgindegirako langilea** behar da. Esperientziarekin. ☎ 948 451906.

**Gidariak.** Abudo sartzeko Udaletxe eta Nafarroako Gobernuan, ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegiak.** Bete behar dute: zaindariak eta haur hezitzaileak. ☎ 948 199596.

**Bezeroari arreta.** Aireportuetarako lanpostu libreak. ☎ 948 199596.

**Lanpostu hutsak.** Administrari laguntzaileak, harreragileak, telefonistak, udaletxetarako informatika. ☎ 948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Erakunde publikoetan erreserbatutako lanpostuak: gidari, garbitzaile, atezain... ☎ 948 199596.

**Ospitalak.** Bete behar dute: zelariak, erizain laguntzaileak, laborategia, fisioterapeutak. ☎ 948 199596.

**Inkorporazio berriak.** Lorezainak, elektrizistak, iturginak, langileak, gidariak, Udaletxetarako peoiak. ☎ 948 199596.

**Lan egin** Autoeskolako monitore. Lan eskari handia. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Haur hezitzaileak.** Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Ikastetxe publikoek.** Behar dute: garbitzaileak, sukalde laguntzaileak, sukaldariak, atezainak. ☎ 948 199596.

MOTORRA

## 501 Salerosketak

**Mitsubishi L200** bi plazako pick-up autoa salgai, 2004. urtekoa, 22.000 km. ☎ 616 756359.

**Ford Fiesta** 1.8D salgai, 5659 CHN matrikula, egoera onean. ☎ 667 056876.

**Volkswagen Polo TDI** autoa salgai. 2001eko apirilekoa. Extrak, gris plateatua. Prezioa: 5.750€. ☎ 948332883.

**Gas-Gas Enducros** motoa salgai. 2004koa. Egoera oso onean. Gutti ibilia. 250 cc. ☎ 690 181644 (18:30etatik aurrera).

**KTM motoa** salgai, 2004koa. 250 cc. Egoera onean. ☎ 609 028584.

**Fiat Brava** autoa salgai. Egoera onean. 1999koa. ☎ 948 580666.

ANIMALIAK

## 602 Salerosketak

DENETARIK

## 701 Galdu-aurkituak

**Bizikleta bat** desagertu da Beran. Mountain-bike estilokoa da, xuri eta urdin kolorekoa eta «Merida» letrak marraztuak ditu. ☎ 948 630629.

DENETARIK

## 702 Salerosketak

**Corbero markako garbigailua** salgai, egoera onean. Gutti erabilia. ☎ 687 950373.


## Zure lan aukerak kezkatzen zaitu?

**Industria Ekipoen Mantenimenduan Goi Mailako Heziketa Zikloa**

Zikloetako ikasle guztiek, **100%ak**, lana lortu dute inguruko enpresetan praktikak bukatu ondorengo bi hilabeteren barnean.
Titulu hau erdietsi ondoren zuzenean sar zaitezke unibertsitateko karrera teknikoetan.

Informazio gehiago: www.pnte.cfnavarra.es/iesbera
**Toki Ona BHI**
Eztegara pasealekua 34, 31780 **Bera**
**Tel. 948 625 000**



Ikasketak. Hezkuntza sistema:




ZELAI - TXIKI S.L.
NAHI DUZUN NEURRIRA ETA ESTILORA
GAZTAINA · HARITZA · INTXAURRA · GEREZIA
Errota, 13 Iraetako Ind. · 20740 ZESTOA · Tfnoa 943 14 78 65
www.zelaitxiki.com
Altzari klasikoak nahiz modernoak


AMAIUR
Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE • ☎ 948 450400
SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA
Modelo berriak: rustikoak, modernoak eta praktikoak
Entzimerak, silestone, granito, corian...
Etxetresna nazionalak eta alemanak
PROIEKTU eta ERREFORMAK
vegasa



Lur
diskoteka
www.lurelizondo.com
2x1
2:30ak arte
ekainak 17
10€
23:30
GualitzO
+ MARIACHI DIEGO QUEVEDO
Milesker!!
Milesker urte osoan etorri zareten guztioi.
Eta lagundu gaituzuenoi:
SAIOA, INTZA, ILARGI, TXOKOTO, LABAYEN,
SOBRINO, AMEZTI, KORTARIXAR, ANTXITONEA,
ELBETEKO POSADA...
Elizondo (Nafarroa)